

Oligarkizazioa Deustuko udalean: 1716ko porrota

Hektor Ortega Lahera
arbolagana@gmail.com

Laburpena

XVII. mendearen amaieran, Deustuko udal batzar irekia herriko gizonak osatzen zuten, etxagun nahi maizter, auzotasun eredu oso demokratikoaren erakusgarri. 1688-1716 bitartean, Bilbon bizi ziren etxe-jabeek erasoak jo zuten auzotasuna eskuratzeko eta herriko udala kontrolpean hartzeko. Deustuarrek erresistentzia gogorra egin arren, ahaltsu haiek, korrejidorearen laguntzaz, legeak eta arauak nahieran bihurrituz eta zemaia eta bortizkeria lagun, garaile atera ziren.

Hitz gakoak: Deustu, Bilbo, udal batzarra, etxagunak, maizterrak.

Resumen

La oligarquización del Ayuntamiento de Deusto: El fracaso de 1716. A finales del siglo XVII, el concejo abierto de la anteiglesia de Deusto estaba formado por los hombres residentes, fueran propietarios o inquilinos. Entre 1688-1716 los propietarios domiciliados en Bilbao intentaron obtener la vecindad en Deusto y cierto control sobre su ayuntamiento. Los deustuarres se opusieron, pero finalmente, los propietarios foráneos consiguieron su objetivo con la colaboración del corregidor, una interpretación torticera de normativas y leyes y, cuando hizo falta, amenazas y violencia.


Palabras clave: Deusto, Bilbao, concejo abierto, propietarios, inquilinos.

Abstract

The Oligarchization of the Deusto Town Council: The Failure of 1716. At the end of the 17th century, the open council (concejo abierto) of the

anteiglesia of Deusto was made up of resident men, whether they were landowners or tenants. Between 1688 and 1716, landowners who lived in Bilbao attempted to obtain legal residency in Deusto and gain a certain degree of control over its town council. The people of Deusto opposed this, but in the end, the outside landowners achieved their goal with the collaboration of the corregidor, a distorted interpretation of regulations and laws, and, when necessary, the use of threats and violence.

Keywords: Deusto, Bilbao, open council, landowners, tenants.



Deustuko eliza eta Doneperiaga dorretxea, 1729ko irudi batean. Sorburua: Archivo de la Chancilleria de Valladolid. Planos y dibujos, carpeta 20, nº 295.

XVIII. mendean zehar Deustuko udal kargudunak (fielak) hautatzeko arauak gutxienez birritan aldatu zituzten eta zazpi eztabaida eta auziren iturburu bilakatu ziren. Jokoa zegoena honako hau izan zen: nortzuk ziren Deustuko auzotasun aktiboaren –auzo batzarrean bozkatzeko eskubidea- eta pasiboaren –kargudun izateko eskubidea- jabe. Botere borrokaldiak izan ziren horiek, jakina, baina azpian aldaketa sozio-ekonomiko nabarmenak zeutzan. Hurrengo lerroetan gatazkaren nondik norakoak hobeto ezagutzen ahaleginduko gara. Horretarako lehenengo aldaketari (1716) begiratuko diogu.

Lehenengo eta bat, esan dezadan Deustuko udal artxiboan gutxi direla XVII. mendeko akta agiriak. Eta XVIII. mendekoak ere ez daude denak, ezta hurrik eman ere.¹ Zorionez udal kargudunak hautatzeko sistemek auzi-mauzi lodiak eragin zituzten eta horren ondorioz agiri ugari laga zuten artxiboetan. Horien bidez abiatu gara Deustuko udal kargudunen bilakaera osatzera.

Ez dira asko Deustuko udal batzarren gaineko ikerlanak. Ignacio Villotak hirutan jorratu du gaia, Deusturi eskainitako liburu eta artikuluetan². Besteak beste, herriko azken udal idazkari Jesus Gaztañagak 1925ean argitaratutako *Pueblos que mueren*³ liburuko informazio mamitsuetatik edan izan du. Berrikiago, Nere Jone Intxaustegik Deustuko udal ordenantzak aztertu ditu, Bizkaiko beste elizate batzuetakoekin batera.⁴

Bizkaiko elizateen funtzionamendua Lege Zaharrean, besteak beste, Gregorio Monrealek, Luis de Guezalak eta Fernando Martinez Ruedak⁵

1. Deustuko Udal Artxiboa (DUA), Bilboko Udal Artxiboa (BUA) bezala, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan (BFAH) dago. Bietako agiriak DUA edo BUA gisa aipatuko ditugu, dagokien nortasuna aitortu nahian. Hala ere, agiritegian bilatu nahi izanez gero, kontuan hartu Deusto edo Bilbao ataletan bilatu behar direla, aipatzen den signaturarekin.

2. Villota Elejalde, Ignacio: *Apuntes de nuestra pequeña Historia de Deusto*. Bilbo. 1977; *Deusto del ayer y de hoy*. Bilbo. 1987; *La anteiglesia de Deusto in Bilbao arte eta historia*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 1990.

3. Gaztañaga Olabarri, Jesus: *Pueblos que mueren*. Bilbo. 1925.

4. Intxaustegi Jauregi, Nere Jone. *Ordenanzas en las anteiglesias del Señorío de Vizcaya durante la Edad Moderna. Los casos de Abando, Baracaldo, Begoña, Ceánuri, Deusto y Dima*. E-Legal History Review, 34 zkia. 2021.

5. Guezala, Luis de. *Las instituciones de Bizkaia a finales del Antiguo Régimen (1793-1814)*. Bilbo. 1992, 83-94 orrialdeak. Martinez Rueda, Fernando: *Los poderes locales en Vizcaya*. Bilbo. 1994. Oro har elizateen funtzionamendua ezagutzeko, ikus Monreal Cia, Gregorio: *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya*. Bilbo. 1974, 169-214 orrialdeak.

eduki dituzte aztergai. Hala Gueزالak⁶ nola, hein batean, Martinez Ruedak, XVIII. mendeko azken laurdeneko egoera islatu dute euren lanetan.

1980 eta 1990eko ildo historiografiko nagusiaren arabera, XVIII. mendean Bizkaiko elizateetako udal batzar askotan oligarkizazio prozesua gertatu zen, boterea lekuan lekuko eliteen esku gelditu arte. Bilakaera hori nekazari herrietako jabego egituren aldaketan ondorioa izan zen, mende horretako hazkundearen ondorioz etxagunak urritu eta erretereroak ugaritu zirelako. Etxagunak maizter bilakatu ahala, auzo batzarretik eta, oro har, kargu guztietatik kanpo gelditu ziren.⁷

Deusturi dagokionez, Gaztañagak borrokaldi baten berri eman zuen: XVIII. mendean deustuarrek auzi luzeari eutsi zioten herrian etxerik eduki zuten bilbotar ugazaben aurka. Villotak⁸ hitzez hitz jarraitu izan dio Gaztañagari. Hona hemen Gaztañagak zelan kontatu zuen:

Una lucha se había entablado entre los propietarios de tierras y caseríos de Deusto que, siendo vecinos de Bilbao, pretendieron tener derecho a ser designados Fieles Regidores de esta Anteiglesia, con idénticas atribuciones que los vecinos de ella. El pleito llegó a exacerbar los ánimos de los vecinos de Deusto en términos tales que la lucha sostenida con los vecinos de Bilbao llegó a tomar caracteres alarmantes. Ello fue causa de un semillero de pleitos que tuvieron su fin hacia el año 1775.

6. Gueزالa, op. cit., 89 orrialdea: “Deusto (con un fiel por el barrio de la Ribera y otro por el de Goyerri)”. XVIII. mendearen azken hereneko udal antolakuntza dugu hori.

7. Ildo horretako ordezkari nagusietako bat Alfonso Otazuren lana izan zen, itzal handikoa. Ikus Otazu Llano, Alfonso, *El “igualitarismo” vasco. Mito y realidad*. Donostia. Txertoa. 1986. Bereziki, 355-370 orrialdeak. Eta Fernandez de Pinedo, Emiliano. *Euskal Herriko Ekonomi Hazkundera eta Gizarte-Aldaketak (1100-1850)*. EHU. Bilbo. 1999. 358-360 orrialdeetan: “arreta horien pean sistema zentsitarioaren antzeko bat ezkututzen zen (...) Maizterrak eta artisauak baztertutik gelditzen ziren errealitatean”. Hala ere, sasoi horretan bertan, kontrako iritziak plazaratu ziren. Juan Jose Labordak, esate baterako, Pinedoren argudio nagusiari (etxagunak maizter bilakatu ahala udal jardueratik kanpo gelditu zirela alegia) kontra egin zion: “puede que fuesen precisamente en las [elizateak] que los inquilinos, por mayoritarios, tenían acceso a los oficios de fieles regidores”. Laborda, Juan Jose: *Comercio y mercaderes en Vizcaya (1700-1730). Aproximación al estudio de la sociedad del señorío de Vizcaya y de la Machinada de 1718*. Tesi fotokopiatua. 1978. 29 orrialdea.

8. Villota, *Deusto de ayer y de hoy*, op. cit., 84-85 orrialdeak. Eta Villota, *La anteiglesia de Deusto*, op. cit., 189 orrialdea.

En el lapso de tiempo en que la reclamación de los propietarios vecinos de Bilbao tuvo en suspenso la forma de elección tradicional, ésta se hacía designándose un Fiel propietario de Deusto y vecino de Bilbao con su suplente y otro Fiel propietario y su suplente entre los vecinos de Deusto.⁹

Gaztañagak ez zuen azaldu auzi sorta hori noiz eta nola hasi zen. Aurrerago erakutsiko dugunez, bilbotar ugazaben nahikariak ez zuen sistema tradizionala behin-behinean bertan behera utzi (“en suspenso”); bilbotar ugazabek beste sistema batez ordezkatu zuten, gatazka latzean garaitu ostean. Ia 60 urterako sistema berria ezartzea lortu zuten. Eta sei hamarkada geroago piztutako beste borroka batean irabazi ondoren, deustuarrek ez zuten antzinako sistema suspertu, beste bat berria eratu baizik.

Edozelan be, bilbotar handikien grinak bestelako bideak irekitzen ditu. Mikel Zabalak Bizkaiko udalak Goi Aro Modernoan ikertu ditu, XVI. mendean eta XVII. mendearen lehenengo erdian alegia. Beste aditu askok bezala, Bilboko albo-herrion izaera berezia nabarmendu du, Bilboren itzala ez baitzen nolanahikoa. Bere ustez,

Bilboko talde zuzentzailea, elizateetako hainbat kideren laguntzaz, interes partikularrak inguruko lurraldean inposatzen saiatu zen. Nekazal elkarrekin, berriz, eutsi zioten. Jurisdikzioko mugapenak, elikagaietako hornikuntza edota tokian tokiko erakundeetako ordezkaritza izan ziren, besteak beste, gatazketako iturburuak. (..) Elizateetan etxebizitzetako jabe bilbotarrek laster ekingo zioten bertako karguak bereganatzeari, maizterrak baztertuz.¹⁰

Maizterrak, hain justu, albo-herriotako ezaugarria ziren, Bizkaiko gainerako eskualdeetan ez bezala, herritarren erabateko gehiengoak ziren eta.¹¹ Estu-estu

9. Gaztañaga, op. cit., 149-150 orrialdeak. Gaztañagaren testua modu okerrean irakurrita, Villotak deustuarren fiela izateko ugazaba izan beharra nabarmendu zuen. Ez zen horrela. Ikus, Villota, *La anteiglesia de Deusto*, op. cit., 189 orrialdea.

10. Zabala Montoya, Mikel. *Erregimendu eta udalbatzak Goi Aro Berriko Bizkaian*. Boletín de RSBAP, 2003, Tomo I, 135-162 orrialdeak.

11. Fernandez de Pinedok eman zituen datuen arabera, 1704an Bizkaian nekazari etxejabeak %52 inguru ziren. Maizterrak, ostera, %43 baino ez. Baina Bilboaldean, etxagunak %15aren azpitik zeuden herri ia guztietan (Basauri, Begoña, Deustu...). Portzentajerik txikiena, Begoñan, %4 baino ez.

lotuta joan ziren, Zabalaren aburuz, elizateotako udal karguak izendatzeko liskarrak eta albo-herriok menderatzeko Bilboren ahalegin ezagun-ezagunak.

Martinez Ruedak, bere ikerketan, XVIII. mendearen akabuko egoeratik hasita, denboran atzera egin zuen, lehenagoko sasoietara alegia, Aro Modernoko bilakaera osatu nahian. Mende horretan zehar Bizkaiko udal batzarretan oligarkizazioa nagusitu zela defendatzen zuen ildo nagusiaren kontra, Martinez Ruedak bestelako tesia plazaratu zuen: elizateotako sistema politikoak, auzo batzarra –herriko etxagunen batzarra, alegia- oinarri zuela, egonkor iraun zuen nekazarien jabego-egiturek auzo batzarrean baserritar etxejabe kopuru nahikoa bermatu zuten bitartean. Baina herrietan nekazari etxagunak urritu ahala, XVIII. mendean zehar alegia, maizterrena hazi zen eta, ondorioz, udal batzarretik kanpo zeudenak herritarren portzentaje handia bilakatu ziren. Etxagunen ahulezi horren ondorioz, herritik kanpo bizi ziren ugazabek parte hartze handiagoa erdietsi zuten udaletan.

Horrela sortu ziren, argudiatu zuen, gatazka modu nagusi bi: kanpoko ugazabak *versus* herriko etxagunak eta erretereroak *versus* etxejabeak. Urteak aurrera joan ahala, borrokaldi horien ondorio nagusiak bi izan ziren, Martinez Ruedari jarraituz: erretereroek, sarritan, udal batzarrean parte hartzeko eskubidea lortu zuten; eta kanpoko ugazaben eskubide hori bera kolokan jarri zuten.

Aurrekoa, guk geuk laburtuta, tesi orokorra da. Baina, arestian esan legez, Bilboaldeko egoera sozio-ekonomikoa zeharo diferentea zen eta haren baitako bilakaera politikoa ere bestelako ubidetatik isuri zen. Martinez Ruedak berak, hipotesi nagusia aldatu barik, bide desberdina planteatu zuen Begoña eta Abandorako, batez ere garaiak aldatuz. Izan ere, kasu bietan XVII. mendean bertan maizterren parte hartze politikoa eztabaidagai zegoen. Zergatik hain goiz? Herri biotan nekazari etxejabeak urri-urriak eta erretereroak hainbeste zirenez, “en ambas localidades acabaron por reconocerse los derechos de participación de los inquilinos”. Begoñan 1630an aldeko sententzia jaso zuten. 1712ko Abandoko ordenantzek herriko erretereroei zein kanpoko ugazabei aitortu zieten udal batzarretara sartzeko eskubidea.

Fernandez de Pinedo, Emiliano, *Euskal Herriko Ekonomi Hazkundea eta Gizarte-Aldaketak (1100-1850)*, op. cit, 277 orrialdea.

Gure iritziz, Deustuko bilakaera ez dator bat planteamendu horrekin. Alderantziz, bestelako bidea erakusten du eta, beharbada, Abandorako eta Begoñarako ere baliagarria izan daiteke, Jose Ignacio Salazar Arechaldek planteatu duen bidetik.¹²

1. DEUSTU 1716KO PORROTA BAINO LEHEN.

Deustu XVII. mendearen akabuan: ugazaba txikien hondamendia.

XVII. mendea, oro har, “ruralizazio” sasoia izan zen Bizkaiko kostaldeko herri askotan, baita Bilbo inguruan ere. Aurreko mendeko ekimen ekonomikoa agortu zen eta, harekin, sektore asko krisi latzetan ito ziren. Herriotatik artisautza, industria txikia eta ontzigitza ia erabat desagertu ziren, edo, gutxienez, hein handian urritu ziren. Herritar gehienentzat baserria bizibide bakarra bilakatu zen. Deustun mendearen erdialdetik aurrera oso joera nabarmena da. Akabo artisauen aitamena (zapatariak, sokagileak, ...), akabo ontziolen jarduna (Busturiatarrak izan ziren azken ontzigileak baina euren ondorengoez ez zioten segidarik eman ogibideari), akabo bestelako industriak (Deustuko errota biak, barbarako, mendea agortu orduko galduta zeutzan). Egia da, hala ere, XVII. mendea amaitu aurretik suspertzearen seinale argiak ageri zirena, batez ere, Deustuko ibarraren kanalizazioaren ondorioz Olabeaga (Erribera) auzoa sortu eta ontzi handien portu bihurtu zen heinean. Bilbon itsas-merkataritza berpizten ari zen.

Baserria, beraz, bizimodu ia bakarra. Baina sektorean ere aldaketak gertatu ziren. Alde batetik, krisiak nekazaritza eta abeltzaintza ere gogor astindu zituelako. Bestetik, 1680ko hamarkadan Deustun izurrite latza sufritu zuten eta hala jardun ekonomikoa nola herritarren kopurua nabarmen gutxitu zen.

Baina goiko bi horiei beste osagai bat bildu zitzaien, askoz ere hilgarriagoa: mende akabuko suspertzean, bilbotar handikiek euren etekinenzako irtenbide bila albo-herrietara jo zuten, baserriak erostera. Merkataritzaren sosak lur sailetan inbertitu nahi zituzten, diru segurua eta, batez ere, Lege Zaharreko gizartean itzala ematen zutelakoan. Horretarako bidea zentsuetan

12. Salazar Arechalde, Jose Ignacio. *Ordenanzas de las anteiglesias de Bizkaia. En especial las ordenanzas de Begoña de 1590*. Vasconia. 36 zkia. 2009, 203 orrialdea.

aurkitu zuten. Krisiak, izurriteek eta, baserria belaunez belaun igarotzeko bide zurrinak deustuar nekazari txiki asko larri estutu zituzten. Irtenbide bakarra zorretan sartzea izaten zen. Baina maileguz hartutako diru haiek, askotan, salbabide baino hondamendirako txartel bihurtu ziren. Zentsuetako korrituak ezin ordainduta, familia ugarik euren etxaldea galdu zuen.

Presio ikaragarria jasan zuten Deustuko baserri jabe txikiek –ez denak nekazariak, bide batez esanda-, eta zenbakitan isla dezakegu. 1674an Deustuko Udalak dirua zentsutan hartu zuen eta maileguari eusteko berme gisa deustuar gizonezko auzoen etxeak paratu zituzten. Denetara, hogeita bederatzi jabe, gehi Madariaga dorretxeko jaunaren ondasun libreak –maiorazkotik kanpokoak-. Hogeita bederatziok 32 baserriren jabe ziren. Dorretxeko jaun Pedro Basabek hiru zeuzkan loturatik kanpo. Gure ikerketen arabera, 1716an 32 etxalde horietarik erdia –gutxienez- eta Basaberen hiruak, galduak ziren ugazaba zaharrentzat. 1800 urtera zazpi baserri baino ez zen heldu 1674ko familiaren baitan. Bostetik bat baino ez, 125 urtetan.¹³

Jabetza aldaketa horiek, arestian esan bezala, onuradun argiak izan zituzten: bilbotar merkatariak, batetik, eta herriko leinu boteretsuak –artean eurak ere ia denak bilbotartuak- bestetik. Doneperiaga dorretxeko askazia ederto moldatu zen eta Ugazarrak ez ziren atzean gelditu. Bilbotarren artean, Morgan eta Rucabado (jatorriz irlandarra eta kantabriarra, hurrenez hurren) dira merkataritzan irabazitakoak baserritan gastatu zituztenen ordezkari peto-petoak. Bi horien inbertsioetako zati handi bat azkenean Salazar Mazarredo leinu boteretsuaren altzo jorian bildu zen, merkatariak eta aristokrazia ezkontzen bidez batu izanaren ondorioz.

Ugazaba txikien artean, oster, inor gutxik bereganatu zuen baserririk 1674-1716 urte bitartean. Salbuespen bakarra, izatekotan, Fano Aldekoa sendia dugu, nabarmen hazita atera baitzen ataka gaizto hartatik. Familiaren abarretan (batez ere Aldekoatarrenetan) banatutako ondasunak bildu ez ezik, beste batzuk eskuratu zituzten. 1718an maiorazkoan lotu zituzten.

Baina beldur barik esan dezakegu Deustuko jabe txikien, etxagunen,

13. Bizkaiko Agiritegi Historiko Probintziala (BAHP). Notarial. Pedro Ortiz de Beraza. 4798. 18-25 orrialdeak. Auzi honen berri Ander Ros Cubasek eman zidan.

hondamendia gertatu zela XVII. eta XVIII. mendeen arteko kantoian. Horren berri eman zuen 1704ko fogerazioak ere. Herriko 118 etxetik 21 baino ez ziren bertan bizi zirenenak. Baina egoera krudelagoa zen. Etxe horietatik asko Olabeaga (Erribera) auzo sortu berrian zeuden eta ez ziren baserriak –nekazaritzarako unitate produktiboak, alegia-, portu giroko etxeak –bizilekuak, ostatuak, tailerrak- baizik. Eta dorretxeetako ugazabak (Madariagako Basabetarrak eta, urte hartan, Doneperiagako jauna) kentzen baditugu, nekez izango ziren hamar deustuar luginen eskuetan bildutako baserriak.

Antzeko panorama zegoen Bilboko gainerako albo-herrietan: Begoña, Abando, Basauri,... Lekuan lekuko nekazari etxagunak herriko baserrien %15 baino gutxiagoren jabe ziren. Prozesua zaharragoa bazen ere, XVII—XVIII. mendeen arteko kantoian bilbotar handikiek albo-herriotako nekazaritza unitate produktibo gehien-gehienak bereganatuak zituzten.

Udal batzarrak eta kargudunak.

Deustuk, Bizkaiko elizateen estiloan, udal auzo batzar irekia (erdarazko agirietan, *cruz parada*) eduki zuen erabakigune nagusi Lege Zaharrean. Herriko agiririk zaharrena, duda barik, 1450eko donazioa da. Bertan, gizonetako multzo batek Done Peri elizako hamarrenak fabrikari (eliza mantentzeko gastuari) eta abadeei eman zizkien. Gizon haiek deustuar auzoak ziren eta auzo batzarrean bilduta –“estando ayuntados a campana tañida en nuestro aiuntamiento según que lo avemos de uso y costumbre”- gauzatu zuten donazioa. Deustuarren auzo batzarren lekukotza idatzirik zaharrena dugu hori.¹⁴

Hurrengo mendeetako datu askorik ez daukagu, baina denek auzo batzarraren nagusitasuna berresten dute. Antza denez, erabaki eta izendapen guztiak batzarraren esku zeutzan. Auzo batzarrak normalean domeketan izaten ziren, goizeko meza nagusiaren ostean, baina maiztasun finkorik gabe, beharrianen arabera. Premiazkoa izanez gero, kanpai-hotsak entzundakoa batu behar ziren. Elizako ateetan bertan –kanposantua be bazen- batzen

14. Agiri horretako kopiak daude hala Bizkaiko Elizaren Histori Arkibuan (BEHA) nola BUAn. Adibidez, BUA, Antigua 0066/001/001. 3908v orrialdetik aurrera.

ziren eta, Iturrizaren ustez, hortik dator elizate izena. XVIII. mendearen erdialdean (1755), Deustun udaletxea altxatu zuten, abadeek herritarrei auzo batzarrak elizan gitea galarazi zitelako.¹⁵

Ezin seguru jakin, hala ere, nortzuk ziren auzo batzarrera sartzeko eskubidedunak. Bizkaiko elizateetan etxea izaten zen eskubide iturria eta, ondorioz, seguru da herrian bizi ziren etxejabe guztientzat zabalik zegoela. Multzo horretan herriko leinu nagusiak zein nekazari txikiak sartzen ziren. Lege Zaharrean, Bizkaiko elizate askotan auzo batzarra herritar etxejabeen batzarra izaten zen.

Orain arteko ikerketek ez dute argitu zer gertatzen zen elizateetako erreteroeekin. Argi dago leku askotan udal batzarretan parte hartzen zutela, baina beste askotan ez. Bestalde, etxagunak eta maizterrak eskubidedunak ziren lekuetan ere, auzo batzarrak muga argiak zeuzkan. Alde batetik, jakina denez, praktikan emakumeak baztertuta zeuden: etxearen jabe bakarra izanda ere –alargunak, berbarako-, ez zeukaten batzarretara joaterik. 1674ko zerrenda hartan ez dago andrerik, nahiz eta orduan Deustuko etxalde batzuk emakume alargunenak ziren. Bizkaiko elizate askotan, hala etxagunaren gainerako senide gizonezkoak, nola haren beharginak –morroiak-, batzarrotatik aparte gelditzen ziren nagusiaren etxean bertan bizi baziren. Beste aldetik, esan beharrik ez dago, etxagun pobreen ahotsak nekez egingo zuen dorretxeko askaziko semearen bozaren burrunba. Lekuko batzuen arabera, adibidez, Luzarrako Martin Ugaz Hormaetxek nahieran erabili zuen herria XVII. mendearen hasieran.¹⁶

Deustuko ezaugarri propioak aitatzten hasi beharko dugu. Lehenengo eta bat, herriak udal ordenantzak onartu zituen 1621ean eta 1662an. Zoritzarrez bigarrenak baina ez dira gorde eta bertan ez da auzotasunaren nolakotasunari buruzko argibiderik. Bigarrenik, XVII. mendeko udal aktarik zaharrenak –guk ikusitakoetarik- 1673koak dira. Sasoi hartan etxagunez gain herriko maizterrek ere auzo batzarrean esku hartzen zuten. Eta hurrengo urteetan,

15. Villota, *Deusto del ayer y de hoy*, op. cit., 86-88 orrialdeak.

16. 1629ko deustuar lekuko baten arabera, “el dicho Martin de Ugaz no consentiera que gozaren los dichos frutos porque fue hombre muy puntual y cuidadoso en administrar y gozar su hacienda y que podía mucho en la dicha anteyglesia de Deusto”. Azpimarra jatorrizkoan. BFAH, Judicial, JCR0843/020. 272v

berdin. Ez dakigu noiztik, baina erreterroak XVII. mendearen hirugarren laurdena agortu orduko Deustuko herri batzarreko kide ziren.

Bereziki esanguratsua begitandu zait arestian aipatu dugun 1674ko agiria. Apirilaren 29an elizako kanposantuan auzo batzarrean 80 herritar batu ziren. Eurretarik 30, esan legez, etxejabe. Gainerakoak, maizter. Dendak Deustun bizi ziren. Erabaki nagusia, herriak mila dukat zentsutan hartzea. Herri lurrak –tartean 30 *ogena* edo soro- eta arielak (udal zergak) jarri zituzten berme gisa, baina baita herritarren ondasunak ere. Herriaren erabakiari babes emanaz auzo guztiak izen-deituraz agertu ziren izkribuan, eta, jabeak, ondasun eta guzti. Banan banan aitatu zituzten 30 etxagun haien etxaldeak: Goiri, Zuatzu, Torrontegi, Aldai, Tellaetxe...

Konstatazio hori beste errealitate batekin osatu behar dugu: gure datuen arabera, 1674an deustuar etxagunek herriko baserrien %30etik gora kontrolatzen zuten eta hogeita hamarren bat ziren. 1650eko egoera ere antzekoa zela uste dut. Beraz, bazegoen auzo etxejabe kopuru ‘nahikoa’ eta, hala ere, erreterroak ere auzo eskubidedunak ziren. Deustun, beraz, ez dirudi Martinez Ruedaren hipotesiaren fenomeno biak –etxagunen gainbehera eta maizterren eskubide politikoen aitorpena- lotuta daudenik.

Are gehiago. Dokumentazioan ez dut topatu erreterroen bazterketa politikoa iradokitzen duen arrastorik. Horrek ez du esan nahi izan ez zenik. Baina oraingoz dakiguna aintzat hartuta, Deustuko maizterrei noiz onartu zieten eskubide politikoa ez da galdera egokia. Erreterroak eskubide horien jabe ikusi ditugu aldi oro.

Herritar erreterrook, ahots eta bozka eskubidedun ez ezik, kargudun ere ikusiko ditugu 1700eko lehen hamarkadan bertan¹⁷. Baina baita lehenago ere: 1688ko biak, esate baterako. Eta 1699an Domingo Mazo fiel hautatu zutenean etxaldea galdu berria zegoen. Sasoi hartako beste asko lez, etxaguna erreterro bihurtu zen.

17. 1703ko fieleako bat –Domingo Elorriaga- Uribarri baserriko maizterra zen eta 1707ko biak –Antonio Etxeandia eta Domingo Aldekoa- 1704ko fogerazioan erreterro gisa identifikatu zituzten. Baliteke, hala ere, arloren baten jabe izatea edo, Aldekoaren kasuan, izen bateko beste pertsona bat izatea.

Gaztañagak nabarmendu zuen bezala, XVIII. mendean beste sektore batek Deustuko auzo batzarretan parte hartzeko eskubidea irabazi zuen: kanpotar ugazabek. Deustun etxea zeukaten jabeak –ia denak bilbotarrak– udal batzarretan agertzen hasi ziren mende horren bigarren hamarkadan. Fenomeno berria da, oro har, duda barik jabe txikien ahuleziaren ondorio. XVII. mendeko udal aktetan ia ez dago kanpoko ugazabarik.

Ia, diot, izan zelako salbuespenik. Adibidez, 1673ko otsailaren 12an. Orduan auzo batzarra egin zen eta kanpotar ugazabetarik batzuk azaldu ziren: Jazinto Etxebarri ahaldu nagusia, Benito Rucabado merkataria, eta hamar bat gehiago. Baina salbuespena gaiari zor zitzaion, eztabaidagai zegoena honako hauxe baitzen: Deustuko kabildoaren aurka jotzea abadeak hautatzeko eskubidea zela medio. Eta, hain justu, eskubide hori orduan hala pertsoneri nola etxeei lotuta zegoen eta, ondorioz, ugazabek zer esana zeukaten, kanpoan bizi arren. Beste horrenbeste gertatu zen, besteak beste, 1676-77an, Agustin Tellaetxe abadea hil ostean haren lekua bete behar zuen elizgizona aukeratzeko auzian, edo 1682an, Manuel Ugazek Deustun abade izan nahi izan zuenean. Alegia, ugazaba kanpotarrek, etxejabe ziren heinean, herriko elizarekin lotutako kontuetarako sarbidea zeukaten batzar hartan. Baina, aldi berean, esan genezake orduan hura ez zela auzo batzarra, eliztar batzarra baino. Bien arteko aldea handia zen. Adibidez, Deustuko ugazaba batzuek errenta kontratuetan euren buruentzat gorde zituzten elizako bozkak, maizterren kalterako. Bestetik, horrelakoetan emakume etxejabeek bozka emateko eskubidea zeukaten.

Auzo batzarrak urteroko lehenengo bilkuran –*urtebarri* egunean– izendatu ohi zituen herriko fielak. Deustuk fiel bi eduki zituen gutxienez XVII. mendearen hasieratik¹⁸. Beste herri batzuetan bakarra aukeratu ohi zuten. Hautaketa sistemetan ere gorabeherak izan ziren baina, itxura denez, kasu gehienetan kargua utzi behar zutenek proposatutako lau izenak zozketatu egiten zituzten (kooptazioa)¹⁹. Auzo batzarrak hautagaiak errefusatzeko

18. 1607/XII/2ko udal batzarraren akta aitatu zuen Ignacio Villotak. Erreferentzia horren arabera, urte hartako Deustuko fielak bi ziren: Pedro Basabe eta Domingo Agirre. Ikus Villota, *Deusto de ayer y hoy*, op cit, 21-22 orrialdeak.

19. Lau izenak ontzi baten sartu ondoren, ume batek banan-bana ateratzen zituen. Lehenengo biak izendatzen zituzten fiel (lehenengo eta bigarren fiela) eta gainerako biak ordezkotzen zituzten. 1691ko hautaketa ekitaldiaren akta hemen: DUA 0229/003.

eskubidea zeukan, hala ere. Inoiz, aho batez hautagaia onartu eta zozketa egin barik fiel aukeratu zuten.

1688an fielen izendapenak auzia eragin zuen eta horri esker datu gehiago jakin ditugu. Kargudun zaharrek -Lazaro Fano eta Pedro Tellaetxe- bina izen proposatu zituzten zozketarako, baina auzo bik salaketa paratu zuten esanez ba ze lauetatik hiru hogeita bost urtetik beherakoak zirela eta, ondorioz, ezin fiel izan. Korrejidoreak izendapen berriak egiteko agindu zien Fano eta Tellaetxeri. Beraz, hogeita bost urte beteak eduki behar zituen kargudunak.²⁰

Fielen ardura izaten zen udal batzarraren erabakiak betearaztea, herrian ordena mantentzea, hornidurak eta dendak ziurtatzea eta ikuskatzea, eta, oro har, herri ondarea jagotea –sosak, bideak, herri lurrak, artxiboa,...-. Normalean fiela bidaltzen zuten Gernikako batzarretara Deustuko ordezkari²¹.

1671 eta 1700 urte bitarteko fiolak aztertuta –horixe baita osatu ahal izan dudana urte sortarik zaharrena- argi ikusten da Deustuko Udaleko agintaritza herriko ugazaba txikien kolkoan lotu zela gehienbat. Bitarte horretan, gutxienez 39 bider fiela gizarte sail horretakoa izan zen, hirutik bi alegia. Handikiek –Basabe, Mendieta, Orue Arbieta...- sei aldiz eskuratu zuten aginte makila. Eta beste hirutan txuzoa errenteroentzat gelditu zela ematen du (1676 eta 1688ko biak).

Argi dago sasoi horretan auzo batzarrean herritar etxejabe eta maizterrak egonda ere, Deustuko fiela ugazaba txikien kontua zela. Herriko handikiek, XVII. mendearen hasieran ez bezala, kargua gutxitan bete zuten. Gure datuen arabera, 1671-80 bitartean lau bider eta mendearen azken 20 urteetan birritan baino ez, Juan Basaberen bitartez.

Jauntxo gehienak Bilbora aldatu izanak, duda barik, zer ikusia eduki zuen kargu sikate horretan. Edozelan be, horra hor kontu garrantzitsua: XVII. mendearen amaieran Deustuko fiel kargua etxagun txikiek zerabilten sasi-monopolioan, herriko boteretsuak aparte zeudela.

20. BFAH, Judicial, JCR0243/034.

21. Adibidez, 1574ko Batzar Nagusietan, “por la anteyglesia de San Pedro de Deusto Pedro de Tellaheche como fiel de ella”. BUA Antigua 066/001/001, 3843v.

Maizterrak udalean, kanpotar jabeak ez.

1688ko fiel izendapenaren aurkako salaketa aurkeztu zuenetako bat Martin Ugaz Hormaetxe izan zen, “vezino desta dicha anteyglesia y de la villa de Bilbao”, gorago aipatutako izen batekoaren iloba. Ugaztarrek Deustuko leinu zahar baten ondorengoak ziren. Eurak ere Deustutik Bilbora aldatu ziren, batzuk behin-behinean eta beste batzuk behin betiko. Hala ere, Deustuko auzo izaerari eutsi nahi izan zioten, euren interesak hobeto zainduko zituztelakoan eta, hein handi batean, euren jatorrizko herrian itzala edukitzen jarraitu gura zutelako.

Izan ere, XVI. mendean bertan sarritan identifikatzen dira dokumentazioan auzotasun bikoitz horrekin: “Bilboko eta Deustuko auzoa”. Baina kasu guztietan deustuarrek dira, eta, Bilbon etxea zabaldu arren, Deustukoari eusten zioten: Ugaz, Basabe, Larrea... XVII. mendean, oster, oso gutxitan agertzen dira horrelakoak. Hala ere, badira. Eta nahasgarriak, arau guztiek salbuespenak dituzten erakusgarri. Domingo Mendieta Zamakonak 1672an Deustuko fiel gisa egin zuen salaketa batean bilbotar auzotzat aurkeztu zuen bere burua. 1671n eta 1678an Bilboko erregidorea izan zen.²² Eta Ugaztarrek eurak Bilbon bizi zirenean ere denboraldiak ematen zituzten Deustun.²³

Beharbada Deustuko leinuek aldarrikatu auzo eskubide bikoitz horrek zabaldu zien udal batzarraren atea kanpoko ugazabei. Beharbada, baina ez zen bide erraza izan. Berehala aztertuko dugun auzi baten, 1630ean, abandotar bati galdetu zioten ea zelan izan zitekeen

“que puede haver dos años poco más o menos que Jacobe de Ugaz Hormaetxe siendo como es vecino de esta villa [Bilbo] y haver tenido oficios públicos en esta villa fue sorteado y salio por fiel de la anteyglesia de Deustua”.

Bere erantzunean, Juanmartinez Arkotxak onartu zuen Ugaztarra fiela izan

22. BFAH, Corregimiento, JCR0296/015. Bilboko karguak, Zabala Montoya, Mikel. *Hutsunea bete nahian*. Boletín RSBAP. Tomo 57, 1 zkia, 2001, 25-65 orrialdeak.

23. 1704ko fogerazioan idatzi zuten, Ugaztarren etxalde nagusian, “al tiempo de las mindimias [vendimias] el yncino passa a la cassa pequeña dicho don Martin [Ugaz, ugazaba] suele asistir [?] a la mayor”. BFAH, Hacienda y Estadística, AH05012/005.

zela baina “tiene por cierto que no le hubieran admitido a menos de que hubiera havido [residencia] continuamente en la dicha anteyglesia en sus haciendas como al presente bive y bibio al tiempo que asi fue fiel”.

Lekuko horri sinesgarritasuna emanez gero, herriko leinu handi batzuk Bilbon bizi arren, tarteka Deustura itzultzen ziren eta horrek ematen zien udal kargudun izateko eskubidea. Felipe Orue ere izan daiteke horren adibide. XVII. mendeko bigarren erdialdean Bilboko auzo gisa sarritan aipatu zuten arren, 1680an Deustuko fiela izan zen. 1681ean Deustuko auzo batzar batzuetan agertu zen baina 1682an Bilboko auzo gisa aipatu zuten eta ez zen Deustuko batzarretara azaldu.

Baina badira salbuespen nahasgarriagoak: 1704an Enrique Manuel Arana izan zen Deustuko fielelako bat. Aurrerago ikusiko dugun bezala, berak ez zuen bere buru deustuar auzotzat. Eta 1710ean fiel zaharrek proposatu lau hautagaietatik bi Antonio Salazar Muñatones ahaide nagusia eta, laster ikusik dugun bezala, bilbotarren eraso gidatu zuen Ignazio Bizente Mendieta izan ziren. Ematen du deustuarrek eurek, noizean behin, kinka egokian, itzal handiko pertsona haiek euren aldean buruzagi nahi zituztela, beti ere herrian bizi ezean parte hartzeko eskubide jarraitua aitortu barik.

1630eko auzi hori eta Abando zein Begoñako fielen inguruko agiriak arakatu ditugu Deustuko auzo batzarraren bilakaera zein izan zen irudikatu ahal izateko. Arestian argitu dugun legez, Deustuko agiririk zaharrenetan errenteroak udal batzarretako partaide islatu zituzten. Maizterrek ez zuten lortu auzotasun eskubidea ugazaba txikien gainbeheraren ondorioz eta kanpoko jabeen *etorrerarekin* batera. Fenomeno nabarmen ezberdinak izan ziren. Martinez Ruedaren hipotesia ez dator bat ondorio horiekin.

Badira, gainera, maizter eskubidedunen ildo horretara garamatzaten bestelako lekukotasunak. Martinez Ruedak berak ere 1630eko auzia aitatu zuen, errenteroei eskubidea aitortu zitzaien une mugarri gisa²⁴. Baina, Jose Ignacio Salazar Arechaldek nabarmendu duen bezala, zalantzan zegoena ez zen maizterrei Begoñako fiel izateko eskubidea ematea ala ez, kentzea baino. Izan ere, auzi horretatik atera daitezkeen ondorioak dira 1590ean Begoñan

24. BUA, Antigua 0038/001/021.

fielak hautatzeko sistema ‘normalizatua’ ezarri zutela, bandokideen arteko gudueta azken aztarnak ezabatuta. Bada, 1590eko ordenantzek Begoñan bizi zirenei –gizonezkoei– aitortu zien auzotasuna, nahi ugazaba, nahi maizter. Eta ez beste inori.²⁵

Hona hemen Begoñako auziaren muina. 1630ean kanpoko –bilbotar, alegia– ugazaba talde batek sistema erabat eta bortizki irauli gura izan zuen, euren itzala baliatuz nobedade bi ezartzeko. Batetik, euren buruentzat Begoñako auzotasuna eskatu zuten. Bestetik, baina aurrekoarekin estu-estu lotuta, errenteroak eskubide barik laga nahi izan zituzten. Euren esku hartze politikoa maizterren kaltetan planteatu zuten:

“porque los verdaderos y legitimos botos son los de los dueños señores y propietarios de las casas caserías y haciendas de la dicha anteyglesia que pagan y llevan las fogueras, chanteles, cargas, repartimientos que se ofrecen en ella y los que son verdaderamente interesados en su bien y su gobierno y conservación y no lo son los que no tienen haciendas y andan en diferentes partes y no tienen cosa que los obligue en la dicha anteyglesia”²⁶

Hain aldaketa mingarria ezartzeko arrazoibidea honakoa zen: auzotasun eskubidea etxeari zegokion eta, ondorioz, etxeko ugazabari, eta ez behin-behineko biztanleari (maizterrari). Begoñarren erantzuna ere doblea izan zen: errenteroen auzotasuna defendatu ez ezik, kanpoko jabeen eskubidea ukatu egin zuten. 1629ko fielek nabarmen laga zuten auzotasun aktiboa eta pasiboa nori zegokion:

“toca privativamente a los vecinos moradores de la dicha anteyglesia [Begoña] y no a los vecinos de esta villa [Bilbo] que tienen en ella caserías ni se hallará que ellos jamas ayan botado a los dichos fieles

25. “Aunque el citado autor [Martínez Rueda] presenta una sentencia del año 1630 por la que se reconoce el derecho de los inquilinos de Begoña a participar en los concejos abiertos, creemos que las ordenanzas de 1590 establecen ya esa posibilidad, sin limitación alguna de participación en los concejos generales. Cosa distinta es que en momentos concretos se negase la participación a los inquilinos vulnerando lo preceptuado en las ordenanzas y por ello se vieron obligados a recurrir en defensa de sus derechos.”. Salazar, op cit, 203 orrialdea.

26. BUA, Sección Antigua 0038/001/021.

ni sidolo”.²⁷

Jaurerriko sindikoak ere txostena eman zuen begoñarren eskubideen alde. Eta interpretazio juridikoaren gakoa ere eskaini zuen:

“los oficios de fieles y otros semexantes de las republicas y su gobierno son personales y no rreales y asi no pueden tener las partes contrarias derecho a los dichos oficios de fieles y su eleccion por raçon de las dichas casas que tenga en la dicha anteyglesia no havitando ni morando en ellas”.²⁸

Auzotasuna, beraz, ez zen etxeari berez atxikitako eskubidea, etxeko pertsonen baina. Ezin zen eratorri auzotasunik etxe-jabetzatik. Bizilagunek herriaren alde egiten zituzten zerbitzuek ematen zuten auzotasuna. Begoñarrek honelaxe azaldu zuten:

“juntandose todos los vecinos de la dicha anteyglesia [Begoña] que son todos los feligreses de ella y continuos moradores y que se comulgan en su yglesia y tienen las cargas y gozan de los oficios onoríficos como son de acudir a los alardes, hazer las sentinelas, ser colectores de la bula, mayordomos y demás cargos”²⁹

Auzotasunaren interpretazio nahikoa aurreratua da, duda barik, demokratikoa, Iraultza frantsesak askotaz geroago zabalduko zuen hiritar kontzeptu aurreratuenetik oso hurrekoa. Eskubidedunak betebeharrak dituzten pertsonak dira. Bizkaiko elizateetan ohikoa zena baina harago zihoan Begoñakoa, gizonezko guztiak auzo egiten zituen eta.

1630eko agiriari azken begirada botako diogu. Begoñaren aldeko lekukoek esan zuten, albo-herrietan antzeko sistemak erabiltzen zituzten: Deustun, Abandon, Etxebarrin, Lezaman,... “la anteyglesia (..) a estado en quieta y pasifica posesión belquasi de hazer la elección y nombramiento de sus fieles en personas que sean vecinos y moradores actuales en la dicha anteyglesia sin

27. Ibidem.

28. Ibidem.

29. Ibidem.

que ayan entrado en suertes otros que no sean tales moradores aunque ayan tenido caserías y vienes en ella”. Salbuespen bakarra Galdakao ei zen. Bertako fielak esan zuenez, herrian bizi ziren ugazabak baino ez ziren kargudun-gaiak.

Baliteke Abandon sasoi hartan hola izatea. Baina ondorengo urteetako agiriek bestelako errealitatea islatzen dute. Gutxienez 1706tik, udal batzarretan herriko jabeek eta maizterrek ez ezik, kanpoko ugazabek ere parte hartzeko eskubidea zuten. 1751 eta 1803ko auzi banak³⁰ argi utzi zuen auzotasun eskubidea etxeari zegokiola.

Abandon bilbotar jabeen erretolika nagusitu zen. Begoñan ez. Deustun... denboraldi batez.

2. BILBOTAR JABEEN OLDARRALDIA (1714-1716).

2.1. 1688ko eraso.

Deustuko udal batzarraren funtzionamendua aldatzeko lehenengo saioak XVII. mendeko azken urteetan abiarazi zituzten bilbotar ugazabek. Agirietan hiru ekinaldiren arrastoak aurkitu ditugu, desberdinak tankeraz baina ezaugarri komunaz jantzita: Deustuko udal batzarrean eragiteko zirrikitu bat topatu zuten.

Ezagutzen dugun lehenengo ekinaldia 1688an egin zuten eta hasierako indarra ugazaba biri zor zaio: Felipe Orue Arbieto eta Benito Rucabado³¹. Orue, Deustuko Doneperiaga dorretxeko semea, Bilbon bizi zen. Arbietotarren maiorazkoen jabea izanik, merkataritzan eta itsasketan murgildutako leinu zaharretako ordezkari petoa zen. Bilbon udal karguak hartuta zegoen Orue, baina, arestian agertu bezala, baita Deustun ere, fiela izan baitzen 1680an. Rucabadok, berriz, merkataritzan dirutza egin eta etekinen zati bat

30. BFAH, Judicial, JCR1003/009, Pedro Olabarriaren etxerako eta JCR3101/008, Mea auzoko Barrondo etxerako.

31. Gogoratu 1688ko fielen lehenengo izendapena salatu egin zutela Martin Ugaz Hormaetxek eta Migel Idoiagak, lau kargudungaietatik hiru 25 urtetik beherakoak zirelako. Lau hautagaiak etxagunak ziren. Azkenean erreterro bi atera ziren fiel. Ikus, BFAH, Judicial, JCR0243/034.

baserriak eroatera bideratu zuen. Ez zeukan loturarik Deusturekin, erositako jabegoak besterik. Bada, 1688ko otsailean, biak bat eginda, Korrejidorearen auzitegian eskabidea aurkeztu zuten. Euren buruak “vecinos de esta villa y de la anteyglesia de Deusto” gisa aurkeztu eta, jarraian, Deustuko lehengo urteko fielak euren jardueraren kontu ekonomikoak aurkeztekotan zeudenez, fidatzen ez zirela argudiatuta³², eskari zehatza egin zioten Korrejidoreari:

suplicamos a vuestra merced se sirba de mandar no se den dichas quantas sin nuestra asistencia e ynterbension y que para el efecto seamos citados suspendiendo para el dia de mañana dichas quantas.

Eskaria Pedro Jacinto Etxabarri Bilbaok ere sinatu zuen, Deustun baserri baten jabe zen leinu boteretsuaren buruak. Harrigarria bada ere, korrejidoreak -Fernando Mier lizentziatuak-, beste alderdiari, Deustuko Udalari alegia, berba egiteko aukera eskaini barik, agindu zion bilbotar ugazabek eskatu bezala egiteko eta, bide batez, udal diruzaina *-depositario de propios-* izendatzeko.

Deustuko udal kargudunei otsailaren 22an jakinarazi zieten korrejidorearen autoa. Erantzun, hamar bat egunetara egin zuten, martxoaren 4an. Juan Arauko eta Antonio Arana herriko fielek lehenengo eta bat argi utzi nahi izan zuten bilbotarrak ez zirela nor kontuak eskatzeko.

“no son vezinos de dicha anteyglesia ni pagan repartimiento alguno de los que se ofrezan en dicha anteyglesia ni jamas le an pagado ni tampoco tienen rresidencia en dicha anteiglesia sino que son vezinos y rresidentes en esta dicha villa [Bilbo]”.

Ez ziren Deustuko auzoak. Hori zen garrantzitsuena. Eta, ondorioz, ezin zuten inongo konturik eskatu. Baina, bitartean, ugazaba horiek ekin eta ekin. Otsaila agortu orduko eskabide berria egin zioten Korrejidoreari: aurreko

32. Honela argudiatu zuten: “Que la anteiglesia tiene pocos propios y aveces se disponen mal” eta gainera “que deciden dos fieles y luego se les aprueban las cuentas. Para que no entren maravedis en sus manos y no se cometan fraudes”, propioetako diruzaina eskatu zuten. ARChV, Sala de Vizcaya, 3412-4. Bertan paper sorta bat dago, titulu honekin: “año 1688. Primer pieza del pleyto de propietarios vezinos de la anteiglesia de san pedro de deusto contra fieles y vezinos de la dicha anteyglesia”. Bertatik atera ditugu datozen orrialdeetan ageri diren auzi honetako aipu guztiak.

hamabi urteetako fielen kontuak euren esku jartzeko. Mier korrejidoreak auto berria atera zuen hilaren 28an, diruzaina izendatzeko eta herritarren baimen barik fielek ordainketarik ez egiteko aginduz eta aurreko hamabi urteetako fielen kontuei dagokienez, Deustuko Udalari esateko zeukana azaltzeko aukera eman zion.

Ondoren gertatu zena jakitean, deustuarrek hamaika ikusteko jaioak zirela pentsatuko zuten: martxoaren 5ean, Felipe Oruek eta Benito Rucabadok, eskribau baten aurrean, ez zuten ba Deustuko diruzaina izendatu!

“dixeron que en cumplimiento del auto de esta otra parte probeido por el señor correxidor de este noble señorío por sis y en nombre de los demas que estaran y pasaran por lo que abajo se dixo desde luego elixen y nombran por depositario de los propios y rentas que la dicha anteiglesia de San Pedro de Deusto tiene a don Ysidro Enderica vezino asi bien de la dicha anteiglesia”.

Eurek biek izendatu zuten Isidro Enderika Deustuko diruzain. Enderika, jakina, bilbotar auzoa zen, Deustuko etxalde baten jabe. Dena prestaturik zeukatela ematen du, Korrejidorearen erabaki bakoitzari berehala urrats bat gehiago emanez erantzuten baitzioten. Gainera, testuan bertan argitu zuten “euren izenean eta agertuko diren guztienean” egiten zutela. Kanpotar ugazaben erasoak dirudi.

Ez dakigu zer gertatu zen baina asmoak orduantxe egin zuen porrot. Alde batetik, Enderikak ezetz esan zuen, ez zuela kargu hura hartuko. Ugazabek, hala ere, eurenari eutsi. Martxoaren 6an korrejidoreari eskatu zioten Enderika diruzain izatera derrigortzeko eta, bide batez, euren auzotasuna aldarrikatu zuten:

porque mis partes tienen hacienda y casas en la dicha anteiglesia de Deusto que son fogueras por cuio dominio son vezinos ynteresados en la buena administracion de los propios de dicha anteiglesia porque faltando estos qualesquiera carga sobrebendria a dicha hacienda como es uso y costumbre en este Señorío.

Kanpotar ugazabak, argudiatu zuten, etxaldean jabe izate hutsagatik auzoak

ziren, eta elizatearen ondarea –*propios*- ondo gobernatzen zela bermatu nahi zuten, txarto eginez gero euren jabegoen kalterako izango litzateke eta. Are gehiago, Arauko eta Arana fielak ondasunik gabeko maizterrak zirena jakinda:

Y porque considerando esto y que no tienen propiedad alguna los dichos Juan de Arauco y consortes tratan de que no se descuide de dichos propios siendo asi que son de la unibersidad y comunidad de la dicha anteyglesia y de su causa publica y para mirar por ella no se nesezita de más ynstancia que lo que en su rrazon se dispone de derecho

Ezin errenteroen esku utzi herriko ondasunak, beraz. Kasualitatea ote da eraso hori fiel biak maizterrak ziren urtean jo izana? Txiripa hutsa ote, gorago ikusi dugun legez, 1688ko lehenengo fiel izendapenak baliogabetu izana, Martin Ugaz eta Migel Idoiagaren helegitea zela medio?

Ugazaben idazkia hurrengo ekinaldietan ere erabili zuten eraso-bide batez amaitu zuten: auzi hori ordaintzeko gastuak fielek euren ondasunetik –ezer ez zeukaten fiel haiek, alegia- ordain zituzaten, eta ez herri diruetatik, auzia fielen eta kanpotar ugazaben arteko liskar pertsonala balitz bezala.³³

Porrotaren bigarren arrazoia -Enderikak ezetz esan izanaz gain-, Deustuk erakutsitako sendotasuna izan zen. Deustuko fielek, herriaren izenean, gogor erantzun zuten martxoaren 13an. Lehenengo, diruzaina izan ala ez deustuarrek erabaki behar zutela eta, izatekotan, auzoek eurek hautatuko zutela³⁴, gainerako kargudunak aukeratzen zituzten bezala, “sin que las partes contrarias ni otros particulares puedan nombrarlos”. Eta gero, mamira jo zuten: salatzaileak ez ziren nor, ez ziren Deustuko auzoak:

33. “protesto en nombre de mis partes no sea a cuenta de los propios de dicha anteiglesia lo que los fieles de ella gastaren en este pleito sino por cuenta de ellos”. 1688ko martxoaren 6ko idazkia. Auzi osoa, esan bezala, RCHV, Sala de Vizcaya, 3412-4.

34. Erantzuna martxoaren 13an aurkeztu zuten Deustuko fielek Korrejidorearen aurrean. Honela azaldu zuten diruzaina izendatzeko ahalmena nori zegokion: “En caso de deberse nombrar tesorero o depositario de los propios y rentas de dicha anteiglesia [Deustua] declarar tocar y pertenecer dicho nombramiento a todos los vezinos de dicha anteiglesia en comun en la conformidad que an estilado y estilan elijir y nombrar a los fieles y demás ministros y oficiales de dicha anteiglesia sin que las partes contrarias ni otros particulares puedan nombrarlos”.

las partes contrarias jamas an tenido ni tienen vezindad ni rrezidencia en dicha anteiglesia y menos an pagado repartimiento alguno ni contribuido con las deudas ni cargas de dicha republica por razon de tener haziendas raices en dicha anteyglesia³⁵

Eta jarraian, Deustuko auzoa izateko zer behar zen azaldu zuten:

sino que mas antes siempre se a estilado en dicha rrepublica quando sea ofrezido azer algun rrepartimiento azerle y rrepartirle entre los vezinos y rrezidentes de ella tenga o no caseria propia o arrendada sin que los que no son vezinos ni rrecidentes aunque tengan caserias ayan contribuido por raçon de tener dichas caserias aya contribuido con dichas cargas ni servicios reales que sean ofrezido sino que mas antes siempre an contribuido con dichas cargas y obligaciones los vezinos y rrecidentes de dicha anteiglesia yndistintamente ayan tenido caseria propia y arrendada”.

Argi zegoen: Deustuko auzoak Deustun bizi eta herriko beharrizanei eusten zietenak ziren, nahi etxagun, nahi maizter. Begoñan 1630 urtean zerabilten auzotasun bera, alegia.

Are gehiago. Fielen idazkiari Deustuko udal batzarrak –orduko ohiko legean, kanpotar ugazabarik gabe alegia- martxoaren 14an egindako bilera gehitu zitzaion. Diruzaina izendatu zuten: Juan Zamarripa. Fielek egindako defentsa babestu zuten deustuarrek eta, azkenean, kanpotar ugazabentzako mezua bidali zuten, argi eta garbi:

“y si don Benito de Rucabado y consortes y otra qualquiera persona si quieren ber y repasar dichas quantas u otras bengan a rrecidir en esta dicha anteiglesia”.

Hura ez zen fielen eta bilbotar ugazaben arteko kontua, herri osoak hartu

35. Egia esanda, hori ez zen zehatza. Gorago aipatu dugun legez, Felipe Orue Arbieta Deustuko fiela izan zen 1680an, Ignazio Aldekoarekin batera. Beraz, auzoa izan zen. Sasoi hartan Deustun bizi izan zela pentsatu beharko dugu. Edonola ere, Doneperiagako dorretzeko jaunaren antzera, Ugaztarrak, Mendietarrak eta herriko beste leinu boteretsu batzuetako semeak Bilbora aldatu ziren XVII. mendean zehar, baina tarteka herrira bueltatzen ziren. Hortik euren auzotasunaren gorabeherak eta, gatazka honetan, euren buruak Bilboko eta Deustuko auzo gisa aurkezteko joera eta aukera.

zuen bere gain Deusturen eskubideen defentsa. Arriskua usainduko zuten bilbotarrek, auzo batzar hori eragozten ahalegindu ziren eta. Bezperan bertan, martxoaren 13an alegia, Korrejidoreari galarazteko eskatu zioten, euren neurrira egin ahal izateko:

“ha llegado a nuestra noticias que por alguno o algunos de dichos vezinos [deustuarrek] se a alegado y quieren juntar los vezinos con cautela a alguna negociación de conseguir su intento sin noticia nuestra ni de otros vezinos y para que la diligencia sea notoria y se haga con deliberación de todos los dichos vezinos y conste de la resulta conbiene baya persona de letras a juntar dichos vezinos y en su presencia hazer notorio lo que esta mandado por Vuestra Merced”.

Alegia, deustuar gutxi batzuek, bilbotar ugazabei ezer esan barik, batzarra egin nahi zutenez, hura galarazi eta beste bat egin zezala, “letradun pertsona bat bertara bidalita Korrejidorearen erabakien berri eman ziezaien deustuarrei”. Korrejidoreak hala egiteko agindu zuen.

Deustuarrek ez zuten korrejidorearen debekua bete, martxoaren 14an udal batzarra betiko legean egin zuten eta, esan bezala, Juan Zamarripa izendatu zuten diruzain. Presioa saihestu zuten. Hilabete geroago, bilbotar ugazabek porrota aitortu zuten. Korrejidorearen aurrean aurkeztutako idazkian ontzat jo zuten izendapena, baina gogora ekarri zuten batzar haren debekua: “los dichos vezinos, aunque congregados a dilixenzia contraria y contra mandato de vuestra merced”.³⁶ Eta jarraian, herri-ondasunen kudeaketan aldaketa piloa eskatu zuten. Maiatzean Korrejidoreak aldaketa horietako batzuk egiteko agindu zion Deustuko Udalari. Presioa egiten zuten, beraz, baina kanpotik. Lortu zuten Deustuko udalean eragiteko zirrikitua, baina eurek ere onartzen zuten kanpoan zeudela. Honela idatzi zioten, sasoi hartan, korrejidoreari:

“pido y suplico a Vuesa Merced [Korrejidorea] mande a dichos fieles y bezinos de la dicha anteiglesia en su cruz parada si vien bisto les fuere las aprueben las dichas fianzas”³⁷

36. 1688ko apirilaren 17an aurkeztutako agiria.

37. Korrejidorearen aurrean 1688ko ekainaren 5ean aurkeztutako idazkia.

Deustukoen erantzuna esku-hartze hari ahalik eta traba gehien jartzea izan zen. Urtegarrenean, oraindik ere 1688ko kontuak entzun barik zeuden kanpotarrak. Azkenean, ahalegin ustel batzuen ostean, 1689ko maiatzeko 22ko udal batzarrean eman zituzten kontu horiek fiel zaharrek, Orue eta Rucabado bertan zeudela. Eta onartu barik, ugazabek kexa piloa jarri zuten kontuen kontra.

1688ko saioak lau ondorio utzi zituen. Alde batetik, sasoi hartan argi zegoen Deustuko auzoa izateko, herrian bizi –etxagun zein maizter- eta herriko beharrezanez erantzun behar zizkiotela, Begoñan ikusi dugun tradizio demokratikoaren ildotik. Bestetik, ugazabek asmo handiagoa bazuten ere –gutxienez diruzaina izendatzea eta, agian, auzotasuna lortzea-, behintzat zirrikitua ireki zuten Deustuko auzo batzarrean eragiteko eta euren auzotasunari bidea ematen hasteko: baziren nor fielei kontu ekonomikoak eskatzeko. Hirugarrenik, ahalegin horretan korrejidorea ezinbesteko laguntzailea bilakatu zitzaizen bilbotar jabeek. Eta, azkenik, deustuar herritarren jarrera ahultzeko ahaleginean, Deustuko udalaren eta euren arteko auzia fielen eta kanpoko ugazaben arteko auzi pertsonala bilakatu nahi izan zuten.

2.2. 1695eko erasoa.

1688an zabaldutako atetik sartu ziren 1695ean. Orduan ere kontu eske azaldu ziren kanpotar ugazabak, multzo handian batuta³⁸. Aitzakia, herriak eskatu behar zuen zentsua. Ekainaren 5ean Deustuko herri batzarrak zentsua hartzea erabaki zuen, hamaika gasturi aurre egin ahal izateko. Besteak beste, herriari ezarritako isun eta diru eskakizun bereziak. Zentsua ateratzeko ahalordea Lazaro Fano eta Antonio Tellaetxe fielei aitortu zieten.

38. Ugazaben ahalordea 20 bilbotarrek sinatu zuten, baita Bilboko kabiloak ere. Eta, nobedadea, sei deustuar ere zerrendan daude. Hala ere, horietatik hiruk –Martin Ugaldek, Joseph Artunduagak eta Felipe Galbarriartuk- idazkia eman zuten, euren parte hartzea gezurtatzeko: “a nuestra noticia es llegado que por diferentes vezinos de esta villa [Bilbo] que tienen sus propiedades en dicha anteyglesia [Deustua] por sis y en nuestro nombre se a yntentando cierto pleyto contra los fieles actuales”. Eurek ez zutela izenik eman horretan, bilbotarrek ez zutela arrazoirik eta fielek herriaren alde egiten zutela lan. ARChV, Sala de Vizcaya, 3412-4. “Pieza 2ª del pleito de propietarios vezinos de la anteyglesia de san pedro de deusto contra fieles y vezinos de ella; el qual se acumulo a otro que es la primera pieza”. 1695eko auziaren gaineko aipuak bertatik eta lehenengo ataletik aterata daude.

Zentsu hartan aukera ederra ikusi zuten kanpotar ugazabek eta arduratu plantak eginez Juan Manuel de Isla korrejidorearengana jo zuten. Honela argudiatu zuten:

“por algunos de nosotros y otros vezinos de la dicha anteyglesia [Deustua] hallandose hella y sus vezinos en ocazion de pagar alguna deuda de asta cien ducados se hizo cruz parada y junta y en ella se determino y decreto buscar a censo asta la cantidad de dichos cien ducados y que los buscasen Lazaro de Fano y Antonio de Thellaeché fieles actuales de la dicha anteyglesia y ha llegado a nuestra notizia que los dichos fieles con color de la dicha horden y poder que tiene algunas clausulas estendidas quieren ecceder dichos cien ducados y tomar mayores cantidades a censo sin ser necesarias para la dicha anteyglesia y sus vezinos a lo qual no se deve dar lugar ni el tal poder estender a la qual no quisieron los otorgantes y a lo que no pudieron por no haver concurrido a su otorgamiento los vezinos necesarios y bastantes”.

Ehun dukatetik gorako zentsurik ez hartzeko, fielen ahalordea baliogabetzeko eta ehun dukatak hartuta bazeuden Bilboko pertsona ‘zintzo’ baten eskuetan lagatzeko eskatu zioten korrejidoreari.

Zentsuaren gaineko ardurak itxurakeria hutsa ziren. Ehun dukat hartzeko baimena baliatuz fielek diru gehiago eskatuko ote zuten beldur ziren. Baina zelan ote? Egia esan, fielentzako ahalorde idazkian ez zegoen inongo diru mugarik. Are gehiago, artean zentsua eginda zegoen: 500 dukat.

Ondoren, zazpi urte lehenagoko eztabaida suspertu zen. Fielek, herriaren izenean, argudiatu zuten salatzaileak ez zirela nor:

“las partes de quienes esta firmada dicha demanda no lo son legitimos para dicha acción deducida pues aunque son propietarios de dicha anteyglesia y gosen y tengan en ella casas y posesiones les falta el requisito de la havitazion en dicha republica. Lo otro porque no viviendo y morando en dicha anteyglesia [Deustu] aunque se considere atribuirles derecho de domicilio y vezindad las casas y propiedades que gozan en su jurisdizion no concurren ni

contribuyen a la paga de repartimientos deudas ni cargas algunas de dicha republica ni a ellos se les puede obligar”.

Eta, ildo horretatik, azken ondorioa atera zuten: zentsu berri horretako ordaintzaileak Deustuko auzokoak ziren, egundo ere ez kanpotar ugazaba haiek. Beraz, ez zeukaten zertan musturra sartu

“en las formas y arbitrios de que dicha anteyglesia y sus vezinos y moradores se balen en sus urjenzias y necesidades para la satisfazion de dichos repartimientos, cargas y deudas precisos”.

Bilbotar ugazaben erantzunak nobedade bi ekarri zituen, 1688ko ekinaldiaren aldean. Batetik, argudio gisa aipatu zuten Done Peri elizako maiordomo kargurako urte batean Deustuko auzoa eta hurrengoan Bilbon bizi zen ugazaba aukeratu behar zela. Bigarrena, euren maizterren lepotik:

“no obsta en manera alguna el dezir que los vezinos de dicha anteyglesia que reziden en esta villa [Bilbo] no contribuyen a los repartimientos deudas y cargas de dicha anteyglesia pues bastava que contribuyesen sus ynquininos (sic)”

Errenteroak ordaintzen zuenak ugazabari eskubidea aitortzen ziola, alegia. Ikuspegi ia feudala ematen du, auzotasuna eta jabetza lotzeaz gain, maizterren jarduna ere ugazabaren eskubide bilakatzen zuelako. Jopuen zerbitzu pertsonalen hatsa dario argudio horri. Bilbotar handiki eta burges haiek, hiribilduko modernotasunaz jantzita, proposamen atzerakoiak, ia berrehun urte lehenago gaingiditutakoak, haizatzen zituzten herritar xeheen auzotasun aurreratua deuseztatu nahian.

Bilbotar aberatsek ustelkeriaren susmoa zabaltzeari ere ekin zioten, fielak larrutu nahian:

“quien paga son los propios y rentas de dicha anteyglesia y tienen muchos y sobrados para pagar sus cargas y obligaciones por consistir en muchas heredades y begas que dan cresidas rentas y goza algunas dicho Lazaro de Fano y otras personas sin pagar como se justificara a su tiempo”.

Jakina, deustuarrek ez zetozen bat argudio haiekin. Maizterrena modu errazean ekarri zuten euren aldera:

“el acudir a su paga los inclinos y arrendatarios (sic) no solo no adelantan el derecho de las partes contrarias sino es que antes bien se excluye por ello mismo. Lo otro porque no cave que dichos ynclinos gozen y tengan voz y boto en los ayuntamientos y juntas generales de cruz parada de dicha anteyglesia y que los dueños de las mismas propiedades quieran tener y tengan otro boto y esto reziste a la disposición de derecho”.

Deustuko fielen idazkiak argi laga zuen hura Deustu eta Bilboren arteko gatazka (ere) bazela: eskubide daukanak liburuak ikusi nahi baditu, doala Deustura; liburuek ez dute zertan Bilbora joan.³⁹

Azkenean korrejidorea kanpotar ugazaben alde azaldu zen, abuztuaren 3ko eta 25eko autoetan, Deustuko udal kargudunei kontuak eskatzeko gaitasuna aitortu zien eta.⁴⁰ Beste urrats bat auzotasunerantz. Herriak apelazioa aurkeztu zuen Valladoliden, Bizkaiko Epaile Gorenaren aurrean, eta auzia 1688koarekin lotu zuten.

2.3. Azken eraso. 1714ko oldarraldia.

XVIII. mendea aldaketa usainaz hasi zen Deustun. Besteak beste, XVII. mendeko gainbehera atzean utzi eta herria berriz ere hazten hasia zen. 1704ko fogerazioan etxe galduen orubeak aitatu bazituzten ere, gutxi batzuk baino ez ziren. Askoz gehiago ziren etxe berriak, batez ere Olabeagan, Ibaizabaleko kai berrien alboan. Bilboko portu handia jaiotzen ari zen.

39. Eta ustezko ustelkeria kasuak aitarzen hasita, deustuarrek bazeukaten zer salatua, kasu honetan izatez deustuarra izanda, bilbotartu egin ziren horietako baten kontra: “Deve dar quenta y paradero de los treynta y tres mill y tantos reales de plata don Domingo de Thellaeché uno de los contenidos en el poder que se dio para este pleyto y los rezivio y paso a su poder prezedidos de la venta de unas heredades y vegas que fueron pertenecientes a dicha republica y aunque fue calidad que con ellos se hubiese de quitar y pagar un zenso de mill ducados no se hizo ni executo por el dicho don Domingo y deve dar quenta y lo pido así”.

40. Korrejidoreak kanpotar jabeak “parte lexítima” gisa onartu zituen, baina deustuarren argudioetako batzuk ere aintzat hartuta: zentsua ez zuen baliogabetu, bilbotarrek eskatzen zuten arren; eta kontuak ematerakoan Deustuko udal ordenantzek agindutako moduan egiteko agindu zuen, liburuak Bilbora eramanez.

Orduan hazkundearen beste seinale argi bat agertu zen. 1710ean Deustuko Udalak txostena osatu zuen ostutako herri lurren zerrendarekin. Aurreko mendean baserriak zein arloak hutsik eta galdurik ikustea ohikoa bazen, azken urteotan –XVII. mendeko azken zatian hasita- lurraren gaineko presioa biziberriturik zegoela pentsa genezake, herri lurren okupazioak kontuan hartuta. Zerrenda egiten hasteak berak fenomenoaren handia erakusten du. Hala ere, okupazioa bere hastapenetan baino ez zegoen, ondoren ehun urtetik gorako borroka eragin behar zuen eta. Askoz be gehiago lapurtu zuten aurrerantzean.

Nork? Egia esanda, zeregin horretan gizarte sail gehienek hartu zuten parte inoiz, baina onuradunik handienak ugazabak izan ziren, jakina. Eta, XVIII. mendean Deustun ugazaba gehienak kanpotarrak ziren, bilbotarrak alegia. 1710eko zerrendan hamabost jabe salatu zituzten. Euretari zortzi kanpoan bizi ziren eta ostutako 21 lursailotarik 14 euren eskuetan zeutzan.

Deustuk ekinaldia egin zuen, baina bilbotar handiki haiek ez zeuden amore ematekotan. Auzia piztu zuten. Lau urte geroago, 1714an, Valladolideko Kantzelaritzaren auzitegian zetzan. Agiri baten arabera, herriak salaketa jarri eta lursailak banan-banan justifikatu ondoren, bere horretan segitu zuen bilbotar ugazaba multzo batek, Ignazio Bizente Mendieta eta Juan Francisco Landa -Doneperriaga dorretxeko jauna, Felipe Orueren loba- tartean zirela. Eurak izango dira hurrengo urteetan kanpoko jabeen erasoaren gidari nagusiak.

Zelan egin zuten? 1710ean, lehenengo-lehenengo, Korrejidorearengana jo eta salaketa paratu zuten fielen aurka. Arrazoia? Aurrekoetan arrakastatsu suertatu zena: kontuak eskatzea. Urtarrilaren 5ean aurkeztutako idazkian fielen salatu zituzten:

“dezimos que en dicha anteyglesia muchos vezinos que an sido fieles an dado sus quantas y otros no y por las que an dado an sido alcansado y no sean cobrado por los fieles que an sido por sus fines particulares de que a resultado grave daño y perjuicio a la dicha anteyglesia”.

Eta, argudio horren ondorioz, neurri zehatzak eskatu zituzten:

“mande que los fieles actuales y su secretario pongan patentes y de manifiesto todos los libros de cuentas elecciones remates decretos y demas que pertenece para su gobierno a dicha anteyglesia para que reconozcan quienes son deudores y se cobre y se pongan claras y corrientes las dependencias de ella y que esta manifestazion se haga en qualquier tiempo que combenga y que se saquen de ellos las copias y compulsas que combinieren a la buena administracion de dicha anteyglesia”.⁴¹

Juan Valcarcel korrejidoreak, bilbotar ugazabek eskatu bezala, agindua eman zuen, bete ezean 100 dukateko isuna ezarrita.⁴²

Aginduaren jakinarazpenak Migel Idoiaga eta Francisco Bozoo Deustuko fielei eman zizkieten. Bozook erantzun egokia eman zuen: liburuak udal artxiboan zeudela, ez zirela inoiz bertatik atera. Korrejidoreari eskatu zion, ikusi nahi zituenak bertara bidaltzeko. Eta lotzeko auzi hau aurretik kontu honen inguruan izandakoari.⁴³

Antza denez, auzia bertan behera gelditu zen eta bilbotarrek ez zituzten kontuak ikusi. Baina, 1714ko erasoak jo zutenean, lehenengo 1710eko urtarilaren 5eko autoa astindu zuten kanpotar ugazabek. Errekamaran gordetako bala zen.

Deustuarren artean Lazaro Fano nabarmendu zen, deustuar etxejabe urrietako bat eta 1714ko fiela. Fanoren gainean ez dakigu askorik, baina ondo baliatu zuen mendeen arteko kantoia bere jabegoak polito hazteko. 1674ko zerrendan bere aitak etxe bat zeukan, Erriberan, eta bere emaztearen aitak baserri bat, Bengoetxe. Andre Marina Aldekoa Aranagaz batera Deustun ondasun sorta ederra batu zuen 1718 urterako: sei etxe Olabeagan (Erriberan) eta Basabeko, Larrauri eta Bengoetxea baserriak. Herritik kanpo, Pasajebarría dorretxea eta baserri pare bat zeuzkan Erandio eta Leioan.

Etxaldeak edukitzeagatik ez zen, inondik inora, baserritarra. Burges kutsuko

41. 1710/I/5eko idazkia. Landak, Mendietak eta beste bederatzi bilbotar ugazabak sinatu zuten.

42. 1710/I/5eko autoa.

43. ARChV, Sala de Vizcaya, 3412-4. Año 1710 pieza 3ª del pleito de propietarios vezinos de la anteyglesia de deusto contra fieles y vezinos de ella. Y esta acumulada a otra que es la primera pieza.

zereginetan jarduten topatu dugu: gabarrak egiten eta gabarrez garraiolari, eraikuntzan, hornikuntzan, hamarrena alokatzen, kai berriko lanak kontratatzen... Fanok eginkizun garrantzitsua bete zuela ematen du, nolabait deustuar ugazaben burua izan baitzen urteotan. Horregatik, gatazka isiotu zenean, bilbotar jabeek bere kontra jo zuten, artez.

Sua 1714an zabaldu zuten. Urte hartako azaroan bost bilbotar lur-jabek, tartean zirela 1688ko Felipe Orueren loba eta Benito Rucabadoren lobaren senarra,⁴⁴ salaketa paratu zuten Korrejidorearen aurrean, egun batzuk lehenago egindako udal batzarreko erabaki bi bertan behera uzteko eskatuz. Erabakiok honakoak ziren: Bilboren kontrako auzi historikoari –jurisdikzio eskubidea zela eta- eustea, hori egiteko ahalordea ematea Simon Aldekoa Aranari eta gastuei aurre egiteko zentsutan dirua hartzea. Bilbotar ugazaba handion esanetan, dena Lazaro Fanoren burutazioa izan zen eta plan horretarako maizterrak erabili zituen. Hona hemen zelan azaldu zuten:

“haviendose juntado en cruz parada algunos ynclinos arrendatarios nuestros y de otros vecinos propietarios de dicha anteyglesia el dia quatro de este presente mes y año con ymterbencion de Lazaro de Fano fiel actual de ella a solicitud ynstancias y sugeriones de este por sus fines particulares dichos ynclinos arrendatarios pasaron sin permiso, concurrencia ni boto nuestro ni de los demas propietarios y vecinos a otorgar dos poderes;”

Pasarte horretako edukia oso larria zen. Alde batetik, bilbotar jabeak kexu ziren batzarretik aparte utzi zituztelako, Deustuko udal batzarretan parte hartzeko eskubidearen jabe balira bezala. Bestetik, euren auzotasun hori errenteroen kaltetan aldarrikatu zuten. Minduta agertu ziren maizterrek esku hartu zutelako –haien baimenik gabe!- eta, hori argudiatuz, inplizituki, udalbatza izaera ukatu zioten auzo batzarrari.

Esateko modu harroagatik edonork pentsatuko luke maizterren parte hartzea eta kanpoko ugazabak ez egotea fenomeno berriak zirela. Baina, ikusi dugun

44. BFAH, Judicial, JCR1344/017. Bertatik hartu ditugu auzi honetako aitamen guztiak. Bost ugazabak ondoko hauek ziren: Doneperiaga dorretxeko Jose Francisco Landa (Felipe Orueren loba), Okarantza (Benito Rucabadoren oinordekoa), Martin eta Antonio Jose Gendika aita-semeak eta Ignazio Mendieta. Deustuko hogeitabat etxalderen jabe ziren bosten artean.

legez, akta eta gainerako agirien arabera, horrela funtzionatu izan zuen Deustuko Udalak gutxienez 1670etik aurrera: udal batzarretan maizterrak auzo eskubidedunak ziren; kanpoko ugazabek, ostera, ez zeukaten sartzetik. Segurutik, 1670 baino lehenago ere, berdin.

Ezin bazter utzi, bestalde, ugazaben paternalismo nabarmena, erreterroak Fanoren txotxongilo gisa aurkeztuz. Are gehiago, agiriaren akabuan zehaztu zuten, maizterrek ez zuten Deustuko elizatea gogoan izaten, eta izatekotan “solo en tiempo de la rresidencia y avitación en ella”.⁴⁵ Begoñan 85 urte lehenago kanpoko ugazabek haizatutako lelo bera. Egia esanda, agiria irakurrita erreteroen guttiz kontrako irudia egingo dugu, ausardia eduki baitzuten euren ugazaben interesen aurkako erabaki larriak hartzeko.

Ugazabek ez zuten euren izkribuan dena kontatu. Batzarraren aktari kasu eginez gero, egun hartan deustuarrek –herritar mordoa batu zen, ez zen isilpeko bilera konspiratzailea izan- Bilborekiko auziari ekiteko ez ezik, beste zeregin baterako eman zioten ahalordea Simon Aldekoa abadeari:

“para que tambien defienda a esta dicha anteyglesia y sus vecinos en los pleitos intentados por esta dicha anteyglesia sobre restituzion de heredades que tienen osurpados diferentes vecinos de esta dicha anteyglesia y propietarios de ella y vecinos de la villa de Bilvao y demandas puestas por estos que no tienen ni pueden tener facultad para ello sobre quantas de fielatos y otras cosas”.

Herri lurak eta fielen diru kontuak. Harraparien gosea eta Deustun eragiteko zirriketua. Bilbotar ugazabek baliogabetu nahi zuten ahalorde hark, hain justu, bilbotar ugazaben auziei aurre egin nahi zien. Arestian esan legez, 1710ean deustuar auzoek herri lurren lapurretaren salaketa egin zuten eta 1714an auzia Valladoliden zetzan. 1710ean bertan bilbotar ugazabek fielen kontuak argitzeko eskatuz auzia eragin zuten, 1688an ireki eta 1695ean zabaldutako bide beretik joz. 1714an berriro aktibatu zuten. Korrejidoreak auzi biak batzeko agindu zuen, deustuarren borondatearen

45. “...dichos ynclinos ynfluidos al otorgamiento de dichos poderes con la cautela que es notoria en nuestro perxuycio de nuestra propiedad y de la dicha anteyglesia en que poco o nada se ynteresan ellos [maizterrak] y quando mas solo en tiempo de la rresidencia y avitación en ella”. BFAH, Judicial, JCR1344/017.

kontra. Deustuarrek Valladolidera jo zuten, beste behin. Borroka bere gorian zegoen.

Baina indar korrelazioa ez zen batere orekatua. Bilbotar jabeek, euren indar eta itzalaz gain, Korrejidorea zeukaten alde. 1714ko azaroan, bost ugazaben eskabide hura jaso eta, Deustuko Udalari berba egiteko eskubidea eman barik, kanpotar etxejabe guztiek bozka zezatela agindu zuen Lucas Saenz korrejidore-tenienteak –Mata Linares korrejidorea Madrilen zegoen-. Hain justu bilbotar ugazaben bozkatzeko eskubide hori zen auzitan zegoena. Eta, ikusi dugunez, Deustuko udal jardunean ez zegoen horretarako aurrekaririk.

Bozkatzeko, 36 ugazabengana jo zuten, banan-bana. Eurak eta salaketa paratu zuten gainerako bostak 41 ziren, baina Deustuko etxe eta baserrien %80 kontrolatzen zuten, gutxienez. Jakina, ia denek salaketari babesa eman zioten. Hiru salbuespen baino ez ziren izan, esanguratsuak hala ere. Enrique Manuel Arana handikiak argi laga zuen

“...que la notificacion que se le haze no es a pedimento de parte legitima y como quiera no debe entenderse con el que responde, pues aunque tiene bienes raices en la anteyglesia de Deusto no es propietario havitador de ella...”

Deustun etxeak eduki bai, baina bertan bizi ez, beraz ez zen Deustuko auzoa. Ezta gainerako kanpotar jabeak: ez ziren nor horretarako –“parte legitima”-. Horrela erantzun zuen Aranak, 1718an matxinatuek Bilbon hil zuten ahaldun nagusia.⁴⁶

Bere arrazoiari beste handiki batek ere eutsi zion: Antonio Salazar de Muñatones. Baina borrokaren hurrengo ataletan Salazarrek kanpotar ugazaben multzoaren interesen alde jo zuen.

Edozelan be, 1714ko azaroan kanpoko jabeek lehenengoz Deustuko auzo

46. Enrique Arana Lazaro Fanoren familia politikoaren senidea zen. Hain justu, bere andre Marina eta koinatu Simon Aldekoa Aranaren sendikoa. Simon Aldekoa Arana abadea, deustuarren interesak Valladoliden defendatu behar zituena, Enrique Aranarekin zegoen 1718ko matxinadan erreboltariak bere etxean azaldu zirenean. Alde horretatik, beraz, bere erantzunaren arrazoi bat deustuarren buruzagiekiko loturan egon liteke.

batzarretako kontu baten gainean bozka egiteko eskubidea gauzatu zuten, nahiz eta modu bitxian izan, bilkuratik aparte, banan-banan. Nolabait, deustuar auzoa titulua erabiltzeko baimena eskuratu zuten. Ez dirudi bozketa hark ondorio praktikorik eragin zuenik –Simon Aldekoaren ahalordeak indarrean segitu zuen-, baina gauza bi erakutsi zituen: bilbotar ugazabak aurrekariak lortzen ari ziren gutxika-gutxika (udal kontuak ikuskatzeko eskubidea, 1714ko azaroko bozketa bitxi hori...) eta Deustuko udal batzarrean esku hartzeko borondate irmoa zeukaten.

2.4. Korrejidorea, Bilboko alkate.

Fernando Ventura de la Mata Linaresek 1714ko maiatzaren 14ko Batzar Nagusian hartu zuen Bizkaiko Korrejidore kargua. 1717ko irailera arte egon zen. Leon aldeko nobleziako kumea zen, Vallecillo eta Sahagun hiribilduetako jauna, besteak beste. Legeak ikasi eta Valladolideko Kantzelaritzako auzitegiko *oidor* (epaile) izendatu zuten.

Berezi samarra gertatu zen bere korrejidore agintaldia, hasiera-hasieratik erabat lotuta 1718an lehertu zen aduanetako matxinadarekin. Eta horrek eragin zuzena eduki zuen ikertzen ari garen auzian. Kargua hartu eta egun bi geroago, 1714ko maiatzaren 16an, Gernikako Batzar Nagusietan egundoko zalaparta iziotu zen erregeak Bizkairako izendatutako Tabakoaren Errentaren faktorearen –Juan Carlos Mirail- gutun bat zela medio. Ahaldun batzuek foruak urratu eta bertan behera uzten ari zirela salatu zuten. Mirail bera urkatzearen aldeko aldarririk ere ez zen falta izan. Korrejidoreak eta Diputazioko buruek jendea baretu nahi izan zuten, baina azkenean Batzar Nagusiek agindua eman zioten Bilboko alkateari Mirail preso hartzeko. Egin ere, horrela egin zuten bilbotarrek.

Urrian Mata Madrilera deitu zuten eta abenduan itzuli zen (horregatik zegoen Lucas Saenz bere tenientea ordezko lanak egiten 1714ko azaroko auzian). Errege agindu-gutun zehatzak zekartzan aldean. Batetik, Mirail askatzeko (artean giltzapean segitzen zuen); bigarrenik, Jaurerriko sindikoaren eginkizun nagusia –errege agindu eta legeak foruaren araberakoak direla baieztatzea- Korrejidorearen eskuetan gelditu zen; hirugarrenik, erresidentzia azterketak egin foru agintean egondakoei; eta laugarrenik,

“que reasuma la jurisdiccion de los alcaldes de Bilbao; deposite por ahora los empleos de regidores de esta Villa; suspenda la eleccion y proceda a la averiguacion de los excesos y a tomar residencia a los capitulares y ministros que lo han sido de tres años a esta parte, conforme esta dispuestos por los fueros 1º y 2º del titulo IV”.

Agindua abenduaren 19koa zen eta, edukiaz jakitun, Bilboko Udala hilaren 29an bertan Korrejidorearen aginduetara jarri zen. Mata Linaresek udal kargudunak izendatu zituen eta Bilboko alkate jardun zuen urtebetez. Aurreko kargudunei okelaren hornidura zuzenean bere gain hartu izana leporatu zien eta hortik justifikatu zen agintaldiaren luzapena.

Ikertzaileak bat datoz hura Mirailen atxiloketaren mendekua izan zela esaterakoan. Labordaren ustez, gainera,

“también [era] una medida que garantizaba la puesta en funcionamiento del sistema regulador del comercio de tabaco basado en el factor”.

Izan ere, tabako kontrabandoaren gaineko kontrolari Bizkaiak, foruen estalpean, jarri zizkion oztopoen ordainean, Felipe V.aren gobernuak, – artean politika ezin zentralistagoa abiarazi zuen, Aragoiko koroako foru guztiak deuseztaturik-, kontraerasoa jo zuen foruak bere alde interpretatuz. Gatazka irekia zen eta 1718ko matxinadan lehertu zen.

Beraz, 1715 urte erabakigarrian, Korrejidorea eta Bilboko alkatea bat ziren. Mata Linares jaunak betiko lekuan aurkitu zituen aliatuak, jauntxoek artean alegia. Laguntzaile bila Bilboko handikiengana jo zuen –tabakoaren eta aduanen kontuan erregearen asmoen aurrean malgu eta otzan azaldu zirenengana alegia- eta bere agintaldian bilbotar lur-jabe haien interesak zaindu zituen. Ikustea besterik ez dago nortzuk izendatu zituen Bilboko errejidore 1715ean: denak handikien sailen artekoak edo haiei lotutakoak (Vargas markesa, Jose Castaños Montaña, Antonio Jose Salazar de Muñatones...). Ez gara harrituko errejidore horietako batzuk 1718ko matxinadan jazarri zituztenen zerrendan ikustean: Enrique Arana, Vargas bera, Domingo Zaldúa eskribaua...

Bada, beste datu bat erantsiko dugu, guretzat garrantzitsuagoa: Matak izendatutako Bilboko hamabi errejidoretik zazpi Deustuko etxeren baten jabe ziren: Martin Tomas Meñaka (etxe 1), Enrique Manuel Arana (2), Jose Francisco Landa (7), Martin Gendika (3), Jose Tristan Aboitiz (1), Antonio Jose Salazar (5) eta Jose Castaños Montaña (1). Zazpien artean, Deustuko hogei etxalderen jabe ziren. Bilboko gainerako udal kargudunetarako ondoko hauek aukeratu zituen: Antonio Vargas Lezama (Vargas markesa), Carlos Ortuño Ariz Tobar, Domingo Zaldia Ugarte eskribaua, Juan Antonio del Barco eta Pedro Orueta. Sindiko, Pedro Nicolas Erkinigo izendatu zuen.

2.5. Bilbotar jabeak Deustuko udal batzarrean.

Kinka hura baliatuz, 1715ean bilbotar ugazabek azken erasoak jo zuten. Mata alkate-korrejidorearen babesaren bermeaz, joko arauak are gehiago aldarazi zituzten, euren gustu eta beharrianen arabera bihurritu eta egokitu arte. Egia esan, eraso hori defentsa modua ere bazen, Bilbon irabazten ari zirena Valladoliden galduko ote zuten beldur.

Prozesu honen egun erabakigarria 1715eko maiatzaren 26a izan zen. Egun hartan Deustuko udal batzarra egin zuten –bilbotarren eskariz deitu zen, egin kontu-, korrejidore jauna –eta Bilboko alkatea, ez ahaztu- buru zutela. Laster ikusiko dugunez, segada hutsa. Kanpotar ugazabek geroago azaldu zutenez, batzarraren helburua eta agintari nagusia bertan egoteko arrazoia zen

“el remedio de los deshordenes cometidos en dichas quantas y manejo de los maravedis de dicha Republica”.

Udal kontuen afera, berriz ere, kanpotar ugazaben aitzakia nagusia Deustuko Udalean sartzeko eta kontrolpean jartzeko ekinaldian. Baina erraz ikusten da benetako arrazoiak beste batzuk zirela: Bizkaian Korrejidorearen laguntzaz modu bidegabean lortutakoa Valladoliden galtzekotan zeuden. Alde batetik, 1715eko urtarrilaren 21ean ‘providencia inhibitoria’ irabazi zuten deustuarrek Kantzelaritzako auzitegian, Korrejidoreak auzi horietan –herri lurren okupazioarena eta udal diru kontuena- eskurik har ez zezan. Bestetik, 1715eko maiatzean errege probisioa lortu zuten deustuarrek, udal kontuen auzia Valladoliden –eta ez Bizkaian- ebatz zezaten. Bilbotar

ugazabek bazekiten legea urratzen eta nahierara bihurritzen ari zirena, Korrejidorearen babesaz, eta Bizkaian irabazitakoa Valladoliden erraz gal zezaketena. Horregatik, Valladolideko bidea itsutu behar zuten.

Hori lortzeko giltza Deustuko auzo batzarrean zegoen. Bertako partaide egin eta haren kontrola lortu behar zuten. Arin jokatu zuten. 1715eko maiatzaren 26ko udal bilkura deitzeko ageriko arrazoia, hain justu, errege probisio hura bera izan zen. Bilbotar ugazaben buruek –Juan Francisco Landa, Antonio Gendika, Lorenzo Landazuri eta Jacinto Etxebarri- aitzakia gisa erabili zuten Korrejidoreari udal batzarra deitzeko eskatu ziotenean:

“respecto de haver llegado a nuestra noticia an ganado los fieles rexidores de ella [Deustua] real probision para que acudamos a la real chancilleria de Valladolid a la defensa de zierto pleito que esta yntentado sobre dasion de quantas y otras cosas y para el efecto suplicamos a Vuestra Merced mande que so las penas que se inpusieren a qualquiera de los fieles de dicha anteyglesia junten a los vezinos de ella en la forma que tienen costumbre el dia primero festibo en el qual protestamos hallarnos presentes como tales vezinos propietarios a hazer nuestra proposiciones. Justizia pedimos”.

Fernando de la Matak atoan bete zuen haien guraria. Deustuarrei batere aukerarik eman barik, zemaikor eta izugarri:

“mediante las expresiones contenidas en el pedimento se manda a qualquiera de los fieles de la anteyglesia de Deusto junte a sus vezinos el primer dia festibo a cruz parada en la forma acostumbrada para el efecto que se pide pena de sinquenta ducados que le sacaran ynbiolablemente”.

Deustuarrek, Pedro Fano eta Domingo Intxaustegi fielen bidez, helegitea aurkeztu zuten. Besteak beste, gogora ekarri zuten, beste behin, bilbotarrek ez zeukatela Deustuko udal batzarrean esku hartzeko eskubiderik eta Korrejidoreak ere ezin zuela auzi horietan parterik hartu. Alferrik. Fernando de la Matak egunean bertan eman zuen autoa, fielen helegitea baztertzeko. Hautu garden-gardena egina zuen: zartada batez, auzi zaharra birrindu behar

zuen.⁴⁷

Maiatzaren 26an egin zuten batzarra. Domeka. Korrejidorea buru, Juan Jose Larragoiti ahalzun nagusia –Deustun etxe bat zeukan-, fiel biak, bilbotar etxejabeak –27, denetara 53 etxalderen jabe- eta herritarrek –90en bat-. Ordena horretan islatu zituen eskribauaren aktak. Kanpoko ugazabak Deustuko udal batzarrean, lehenengoz. Eta, esan bezala, Korrejidorea bertan, nobedadeari bidea urratzeko. Argi utzi zuen, hasieratik:

“[Korrejidoreak] dixo en este congreso se hallava en ella de pedimiento de los dichos don Joseph de Landa, don Antonio Jazinto de Guendica y Mendieta y otros de los referidos vecinos propietarios de esta dicha anteyglesia para conferir y tratar lo que se ofresiere y propusieren y fuere del maior servicio de anbas magestades divina y umana y vien y util y conveniente de esta dicha anteyglesia su aumento y conserbación y para que se aga con toda paz y quietud”

Bilbotar ugazabak Korrejidorearen eskutik sartu ziren Deustuko udal batzarrean, lege eta ohitura guztien gainetik. Zertarako? Batzarrak onartu zuen lehenengo ebazpena ezin argiagoa da: Simon Aldekoari 1714ko azaroan emandako ahalordea kendu eta Ignazio Bizente Mendieta bilbotar ugazabari eman zioten. Aurrerantzean, Deustuko herriaren ibilerak Valladolideko auzitegietan bere esku egongo ziren. Salatua, bere kontrako salaketaren arduradun. Kantzelaritzako bidea itsututa, deustuarren itxaropena zeharo galarazi zuten.⁴⁸

47. Deustuko fielen helegitea. 1715/V/25. “porque siendo el motivo de pedir se aga dicha cruz parada el de dicha Real Provisión ultima que para en poder de dicho Sindico y estando como VM esta ynivido en dicho pleito sobre no ser tales vezinos de dicha anteyglesia las partes contrarias y demas consortes vezinos y residentes en esta villa y no en dicha anteyglesia ni deven ser admitidos en sus ayuntamientos por tales vezinos”. ARCHV, Sala de Vizcaya, 3412-4.

48. Hona hemen dekretu horren akta: “haviendose tratado y conferido por los dichos don Ygnacio Vizente de Mendieta y Zebericha don Martin de Guendica y otros de los referidos vecinos y cavalleros en razon del pleito yntentado por el dicho don Ygnacio Vizente en horden a la revicion de quantas de los fieles que han zido de esta dicha anteyglesia por donde consta tener que haver muchos reales en dichas quantas y poder dado por algunos de sus vecinos a don Simon de Aldecoa (..) para el seguimiento de dicho pleito en la real chancilleria de Valladolid donde se halla pendiente, por todos los dichos señores corregidor diputado general vecinos propietarios y cavalleros dixeron que revocaban y recovaron el referido poder otorgado en este mismo puesto por los fieles y algunos vecinos de esta dicha anteyglesia en favor de dicho don Simon de Aldecoa en todo y por todo dejandole como

Lehen segada berba erabili dugu. Ez da dudarik horrela izan zela. Bizkaiko agintari nagusia (eta Bilboko alkatea) batzarraren buru, bilbotar guzti haiek jaun eta jabe (tartean Bizkaiko ahaldun nagusi bat eta Bilboko bost errejidore),... deustuarrek kikildu nahi izan zituzten. Aktak berak jasotzen du Simon Aldekoaren ahalordea kentzeko erabakia deustuarren parte hartzerik gabe hartu zutela:

“por todos los dichos señores corregidor, diputado general, vecinos propietarios y cavalleros dixeron que revocaban y recovaron el referido poder otorgado en este mismo puesto por los fieles y algunos vecinos de esta dicha anteyglesia en favor de dicho don Simon de Aldecoa”

Korrejidorea, ahaldun nagusia, auzo etxejabeak (bilbotarrak alegia) eta zaldunak. Eta herritarrek? Gehienak isilik-misilik, hain izan zen handia ugazaben indar erakustaldia. Baina denak ez. Batzarrean bertan, ausardia handiz, 30 deustuar (gutxi gorabehera, bertan zeuden herritarren herena, bilbotar ugazabak kontuan hartu barik), Pedro eta Lazaro Fano buru, Simon Aldekoari ahalordea kentzearen kontra azaldu ziren. Hogeita hamar haietatik hamarren bat etxagunak ziren, gainerakoak errenteroak.

Bilkura ostean, erabakitakoaren dekretua sinatzeari uko egin zioten herriko etxejabe txiki batzuek. Ez zioten amarruari legimitaterik eman gura izan. Pedro Fano fielak harro eta argi erantzun zion Korrejidorearen eskribauari, hamabost egun geroago, akta ez sinatzeko arrazoiengatik galdetutakoan. Simon Aldekoari ahalordea kentzeko dekretua

“es nulo assi respecto de la inibisión con que se halla el señor corregidor del Señor Juez maior, como porque constandole a su merced el que esta pendiente el pleito y pleitos sobre que su merced está inibido y en especial en quanto a que los vecinos y moradores de la villa de Bilbao que tienen caserías en esta dicha anteyglesia no

le dejan en su buen credito fama y reputación por la presente y su tenor y en la vía y forma que mejor pueden y aia lugar de derecho dan y otorgan poder xeneral y sin limitación de cosa alguna en favor de dicho don Ygnacio Vizente de Mendieta y Zebericha para que siga el referido pleito de revicion de quantas que tiene yntentado asi en el tribunal de dicho señor correxidor como en la dicha real chanzilleria de Valladolid ante el señor juez mayor de Vizcaya señores presidente oidores y demas tribunales conpetentes”.

tienen voz ni voto en la cruz parada de ella por no ser vecinos; y sin embargo de eso haverlos admitido su merced en dicha cruz parada y no solo a ellos sino al mismo tiempo haver numerado por votantes a sus caseros de dichas sus caserías duplicando por este medio el numero de los votos sin que hubiese tomados los votos de cada uno de los vecinos havitantes que devían votar sino que tan solamente por los que dixerón dichos los de dicha villa se halla asentado en dicho decreto que votaron los demás ecepto los que nominaten acudieron a contradecir y protextar a que no se atrevieron los demás respecto de ber que si alguno desta dicha anteyglesia ablaba los amenazaban y no dejaban ablar ni decir su sentir los vecinos y regidores actuales de dicha villa de Bilbao donde su merced de dicho señor corregidor haze oficio de alcalde y a cuio pedimento hizo conbocar y fue a dicha cruz parada acompañado de todos los de dicha villa de Bilbao y de otras muchas personas de ella, asi religiosos como clérigos seglares (..).⁴⁹

Balio bako dekretua, beraz, Korrejidoreak birritan urratu zuelako legea: berak ezin zuen auzi horretan esku hartu –“su merced está inibido”- eta kanpoko ugazabek artean ez zeukaten auzo batzarrean parte hartzeko eskubiderik. Gainera, salatu zuenez, biltzarrean bilbotar andana bat agertu zen, elizgizonak eta fraideak tartean, Korrejidorearen eta enparauen babesaz, deustuar herritarrek beldurtzeko eta isilarazteko. Hura ez zen legezko batzarra izan.

Are gehiago. Pedro Fanok salatu zuenez, ugazaben eta Korrejidorearen arteko lankidetzan benetako konspirazioa gauzatu zuten:

“ y que dicho decreto no solo [no] se escrivio ni formo en el dia en que se supone se hizo sino que aun mas antes es notorio a dicho señor corregidor que a Martin de Ugarte uno de los escrivanos que asistieron en dicha cruz parada se le ha amenazado para que firme y conbenga en el decreto que han querido se ponga y que por esa raçon muchos dias despues que paso dicho decreto concurrieron los tres escrivanos que asistieron a dicha cruz parada en casa de su merced dicho señor corregidor sobre la formación de dicho decreto y que por

49. BFAH, Judicial, JCR2928/026.

ultimo se a acavado de formar en la forma que está de que tambien resulta nulidad del y no tener el que responde obligacion de firmar el decreto que se a dispuesto en dicha villa de Bilbao”.⁵⁰

Batzarra egin eta egun batzuk geroago Korrejidorearen etxean osatu zuten hiru eskribauek –euretarik bat behartuta, antza- kanpotar ugazaben gustuko dekretua. Horrela, salatu zuen Fanok, eskuratu zuten auzotasun eskubidea bilbotar etxejabeek.

Baina Korrejidorearen itzalaz, dekretua baliagarri suertatu zen eta indar oreka zeharo iraulita gelditu zen. Joaldi bortitz batez deustuar etxejabeen agintaldia desegin zuten, aitaren baten desegin ere. Epaileen erabakiei itxaron barik egin zuten, konspirazio bideak erabiliz, boterearen bortizkeriaren zemaia erabiliz eta Korrejidorearen beraren konplizitate aktiboaz. Eta, arestian esan legez, Deustuko auzo batzarrera Bilboko errejidoreak, auzoak, fraide eta abadeak agertu izanak segada izaera baieztatzen zuen⁵¹.

Pedro Fanoren erantzun ausartari eutsi zioten sinatu nahi izan ez zuten guztiok: Lazaro Fano, Migel Idoiaga, Goiritar aita-semeak, Mutiozabaldarrak, Francisco Arana, Pedro Etxebarria eta Pedro Ribera. Baina bilbotar ugazabek Korrejidorearen auzitegian salatu zituzten eta Korrejidoreak estu hartu zituen: ekainaren 15ean bakoitzarentzat 50na dukateko isuna agindu zuen Fernando de la Matak. Dirutza, ia denentzat. Korrejidorearen aguazilak Deustuan azaldu ziren eta ondasunak bahitu zizkieten. Deustuarrak elizan babestu ziren, “a sagrado”.

Beldurak airean, nondik heldu ez zeukatela ikusirik, deustuar etxejabe txikiek amore eman behar izan zuten. Astebete geroago barkamena eskatu zioten Korrejidoreari eta dekretua sinatzeko prest agertu ziren. Udal aktan jasotako protesta ere kendu zuten. Hala ere, erantzunaren harroa bakartu ezinik, Matak ez zien isuna kendu, merketu baino: denen artean ehun dukat.

50. Ibidem.

51. Fraide eta abadeen presentzia esanguratsua da. Izan ere, sasoi hartan eliteek herritarrak baretzeko erabili izan zituzten. Hiru urte geroagoko matxinadaren gorian ere beste horrenbeste egin zuten oso modu nabarmenean. Bestalde, Deustuko maiatzaren 26ko udal batzarrean Bilboko bost errejidore agertu ziren: Antonio Jose Salazar, Jose Castaños, Martin Gendika, Jose Francisco Landa eta Jose Tristan Aboitiz.

Bilbotar ugazabak zeharo gailendu ziren.⁵²

2.6. Deustuarren porrota. 1716ko aldaketa.

Hain izan zen erabatekoa garaipena ezen etxejabe txikiek amore eman eta euren aurkakoen baldintzak onartu behar izan zituzten. 1716ko urtarrilaren 1ean, nork eta Pedro Fano fiel zaharrak, Domingo Insaustegi bere kidearekin batera, fiлак izendatzeko sistema aldatzeko proposatu zuen. Sei hilabete lehenago Korrejidoreari harro aurre egin zionak bilbotar ugazaben neurriko proposamena aurkeztu zuen:

“que hera necesario se pusiese en práctica para en adelante su forma y no en la forma acostumbrada; para lo qual todos unanimes y conformes decretaron lo siguiente: Dijeron que querían y hera su boluntad por haver considerado con madura reflexion ser lo más util a esta Ante Yglesia para el bien de ella y el servicio de ambas majestades Divina y umana el que de oi en adelante se sortearan por sus fieles en los quatro botos en que siempre se ha hecho el sorteo dos de los propietarios vezinos de esta dicha Ante yglesia y de las villa de Bilbao dos de los vezinos y avitantes de esta Ante Yglesia para que siempre tenga ella un fiel de los propietarios vezinos de esta referida Ante yglesia y de la villa de Bilbao y otro de los vezinos y avitantes; y para que se pudiese lograr esto se sortearan en un cantaro los dos propietarios vezinos de esta Ante yglesia y de la villa de Bilbao para que saliese el primero fiel y que el que quedase en el cántaro fuese su segundo, y que con el mismo orden se sortearan también los vezinos avitantes y que en esta forma devía hacerse la elección y no en otra, pero que para que en todo hubiese higualdad enre los propietarios vezinos de esta Ante yglesia y villa de Bilbao y los vezinos havitantes querían el que este dicho año de los dos fieles que han de ejercer el oficio fuese el primero el propietario vezino de esta Ante Yglesia y Villa de Bilbao y el segundo el vezino havitante de esta dicha Ante Yglesia y que el año siguiente de mil setecientos diez y siete fuese el primero de los que han de ejercer el dicho oficio de fiel el vezino havitante de esta dicha Ante Yglesia y el segundo el propietario vezino

52. BFAH, Judicial, JCR2928/026.

de esta dicha Ante Yglesia y de la villa de Bilbao”.

Beraz, fiel bietarik bat bilbotar ugazaben artean hautatu behar zuten aurrerantzean, eta bestea Deustun bizi zirenen artean, jabea izan nahi ez izan. Deustuar jabe txikien agintaldia agortuta zegoen. Fielak bilbotar ugazabak/deustuarrak multzoen artetik aukeratu behar zituzten, bakoitzetik bana. Aurrerantzean deustuarrei zegokien fiela gehienetan errenteroa izan zen.

Aurrerantzean... harik eta baldintza sozio-ekonomikoak berriz ere aldatu ziren arte. Sistema berriarekin, 1716an Juan Jose Musaurieta –Ugaztarra- atera zen bilbotar ugazaben fiel gisa eta Francisco Arana deustuarrena.

Beraz, XVIII. mendeko lehenengo hamabost urteotan ikusita laburbilduz, deustuar etxejabeen hondamendia gauzatu zen. Alde batetik, klase gisa bilakaera sozio-ekonomikoak desagertze bidean ipini zituen. Bestetik, Deustuko Udalean euren nagusitasuna galdu zuten. Kinka horretan indartsuen bilbotar ugazabak agertu ziren. Seguruenez, Deustuko Udala etxejabe txiki gutxi batzuen eta maizterren esku ikustea artegatu zituen. Bestetik, gero eta gehiago ziren, salmenten bidez etxaldeak eskuratu zituztelako, baina baita Deustuko leinu nagusiak Bilbora aldatu zirelako. Azken horiek izan ziren, seguruenez, bidea zabaltzeko zutenak, deustuar auzotasunari eutsi nahi izan ziotelako Bilbon bizi arren. Haien itzala erabiliz, legea bihurrituz eta bortizkeria lagun, eskubide berria lortu zuten kanpotar ugazabok: Deustuko auzotasuna. Eskubide horretatik beste bat ekarri zuten: fioletako bat eurentzat gordetzea. Azken finean, urte askotan iraun zuen sistema euren mesederako aldarazi zuten.

Edozelan be, eskubide berri hori ez zuten maizterren kaltetan lortu. Errenteroek euren auzotasunari eutsi zioten. Alde horretatik ikusita, auziak gizarte sail horren indarra islatzen du. Agirietan arrasto gutxi laga duten pertsonak izan arren, ikertzaile batzuen aburuz elkarren kontra lehiazera kondenaturik bizi ziren arren, garaiko lekukoek inoren zerbitzura ikusten bazituzten ere, multzo horrek bere eskubidea atxiki zuen, isilik-misilik baina tinko. 1716an herriko biztanleen % 90 ziren.

2.7. Prozesuaren oihartzunak Valladoliden.

Gatazka gordin hartako jokaleku nagusiak Deustuko auzo batzarra eta Korrejidorearen auzitegia izan arren, beste oholta batek aparteko garrantzia eskuratu zuen: Valladolideko Kantzelaritzako auzitegia. Bertara egiten zituzten bizkaitarrek euren helegiteak Bizkaiko Korrejidorearen ebazpenak iraultzeko asmoz. Bertan lortu zituzten deustuarrek euren garaipen nagusiak.

Deustuarren interesak defendatu zituzten legegizonek behin eta berriz erabili zituzten Bizkaian baliatutako argudioak, alegia, bilbotar ugazabak ez zirela nor Deustuko udal kontuetan eskurik hartzeko, herri lurrak modu bidegabean bereganatu zituztela eta udal kontuen gaineko auziak kontraeraso gisa eragin zituztela.

Baina, horrez gain, Valladoliden ahoan bizarra barik salatu zituzten kanpotar jabe haiek, Korrejidorearekin batera, deustuarrei egindako barrabaskeriak. Juan Andres Garciak sinatutako idazki honetan, esate baterako, argi eta garbi azaldu zuen Mata korrejidorearen jokaera gaizto eta bidegabea:

“y es así que abiendo benido todos los autos por mis partes se expresaron agravios de ellos y pretenden que en atenzion a los que claramente resultan les hizo dicho vuestro Correxidor se retengan en esta dicha real audiencia y pidieron asimismo y se les despachó real provisión para que pendiente en ella no se ynobase ni prozediese en horden a lo expresado [bilbotar ugazaben auzotasuna]. Con la qual se requirio al mencionado vuestro Correxidor y debiendo en su cumplimiento abstenerse del conozimiento de qualquiera yntroduzion y pretension quen horden a esto se hiziese en contrario, no tan solamente no lo a echo sino que con el fin de mas bejar molestar a mis partes y por conplazer a las contrarias aora nuebamente mando juntar a las mias a cruz parada y en la forma acostunbrada a fin de hazerles dibersas proposiciones no solo en horden a lo sobre que se litiga, procurando con ellas embrazar su justo seguimiento y yntento de mis partes sino pribar a algunos de ellos de su libertad amedrentadoles y amenazandoles a que se desistan y aparten de estos pleytos y reboquen los poderes que tienen dados ynponiendoles para

que ejecutasen dicha junta penas y aperzibimientos⁵³

Idazki hori 1715eko maiatzeko gertakarien ondorioa da. Lehenago ikusi dugun bezala, Korrejidoreak behartutako batzar hura egin egin zuten, eta hori izan zen Deusturen porrotaren giltzarria. Valladolideko haien ordezkariak batzar hura salatu zuen, bertan behera uzteko eta Korrejidoreari eskurik ez hartzeko agintzeko eskatu zuen. Hori izan zen deustuarren izenean egindako azken jarduna. Jarraian, bilbotarrek Valladolideko bidea itsutu zuten, Simon Aldekoaren ahalordeak baliogabetuz.

Hala ere, hori baino lehen, deustuarren lege ordezkariak ozen plazaratu zituzten amarruaren nondik norakoak. Esate baterako, 1715eko otsailean, Korrejidorearen eta bilbotar ugazaben eraso bidegabea salatzerakoan, haien interesak non elkartzen ziren ere argitu zuten:

“Lo otro porque de lo referido se reconoce la justa pretension de mis partes y los agravios que se les an echo por el Vuestro Corregidor procediendo a contemplación de las partes contrarias por ser personas poderosas y allarse rejidores de dicha villa de Bilbao y por tener dicha anteiglesia pleito pendiente con la Justizia y Regimiento de dicha villa y allarse actualmente dicho Vuestro Corregidor ejerciendo el oficio de alcalde ordinario de ella por cuia causa a sido y es justa la retención de dichos autos en esta real audiencia”.⁵⁴

Auzi hura ezin zen Bizkaian ebatzi, Korrejidorea eta bilbotar ugazabak bat eginda zeudelako. Eta zergatik? Bilbotar haiek Bilboko Udaleko errejidoreak ziren, pertsona ahaltsuak, Bilbok eta Deustuk elkarren kontrako auzia zeukaten, jurisdikzioak zirela medio, eta Korrejidorea Bilboko alkate zegoen sasoi hartan. Interes guztiek bat egiten zuten. Ahaltsuak eta Bilboko Udaleko buruzagiak ziren guztiak. 1715eko azken erasoaren orduan ere, berriro salatu zuten:

“manifestando con estas tropelias dicho vuestro correxidor el odio que sin motibo alguno a captado a mis partes y deseo y animo de

53. 1715eko ekainaren 17ko idazkia. ARChV, Sala de Vizcaya, 3412.4, lehenengo atala, 35-35v.

54. 1715eko otsailaren 14ko idazkia. ARChV, Sala de Vizcaya, 3412.4, lehenengo atala, 19-19v.

continuar en faborecer a las contrarias como rejidores que algunos de ellos actualmente son de dicha villa [Bilbo] personas poderosas y de mucha mano en ella y en la referida anteyglesia con los ynquilinos de las caserías y heredades que allí tienen”.⁵⁵

2.8. Bilbotarrak.

Hasieran ikusi dugun bezala, Mikel Zabala ikertzaileak estu lotuta ikusi ditu Bilbo/albo-herriak gatazka historikoa eta udal batzarraren bilakaera. Aurreko testigantzak aintzat hartuta, herrian bizi ez ziren ugazaben aferak bazeukan, eduki, beste ikuspegi hori, inongo zalantzarik gabe.

Alde batetik, kanpoko jabe haiek ez ziren edonongoak, Bilbokoak baizik. Bilbotarrak. Begoña, Abando eta, jakina, Deustu menderatu gura zituen hiribildukoak, alegia. Bilbotar haiek Deustun agintari ikustea mingarria zen herritarrentzat, urtero Bilboko alkateak eta bere segizioak Deustura egiten zituen ikuskatze bisitak –Done Peri, San Bartolome eta San Silbestre egunetan- iraingarri egiten zitzaizkien bezala.⁵⁶ Are areago, bilbotar ugazaba haiek Bilboko kargudunak izaten ziren maiz. Beraz, gaitza zen alderdi biak ez nahastea. 1715ean, Valladoliden ez ezik Korrejidorearen aurrean ere salatu zuten bezala, bilbotar ugazaba haietako batzuk:

rejidores que algunos de ellos actualmente son de dicha villa

Bilboko errejidoreak Deustuko udal batzarrean deustuar auzo gisa jardun nahian ikustea mingarria eta lotsagarria izan zen deustuarrentzat. 1715eko maiatzaren 26ko batzarrak astindu galanta eragin zuen herrian.

Jakina denez, Bilbo eta albo-herriok auzitan jardun ziren Aro Modernoan zehar ia etenik gabe. Bilbok, fundazio-agiriak markatutako mugak lortu ezinik, ingurueta elizateen gaineko jurisdikzioa erdietsi nahi izan zuen. Begoñak, Abandok eta Deustuk, berriz, euren erabateko independentzia bermatu nahi zuten, Jaurerriaren laguntzaz sarritan. Eta une hartan bertan,

55. 1715eko ekainaren 17ko idazkia. ARChV, Sala de Vizcaya, 3412.4, lehenengo atala, 35-35v.

56. Bisita horien gainean hemen aritu nintzen: Ortega, Hektor. *Jaia eta gatazka: Deustuko Done Peri eguna (1648-1846)*. Bidebarrieta, 25. zkia. 2014. 34-47.

agirian salatu legez, auzia irekia zegoen, noiz ebatzi zain, jurisdikzioa zela eta.

Horregatik, herrian bilbotarrak agintari ikustea Bilboren mendeko sentitzea zen, hein baten sikiera. Begoñarrek argi eta garbi esan zuten 1630eko auzi hartan:

“pues para la conservación de las dichas caserías como propietarios tienen su cofradía y junta por sí con los demás propietarios donde confieren y tratan de su conservacion a diferencia de las demas juntas del gobierno de la dicha anteyglesia en que no ynterbienen y sea observado de ynmemorial tiempo a esta parte sin contradiccion alguna y expecialmente de vezinos de esta villa [Bilbo] por la yncompetibilidad (sic) de jurisdicciones que hay demas razones dichas y otras que son notorias”.

Azpimarra gurea da. Kanpotar ugazabek ez zuten Begoñako auzo batzarretan parte hartzen, are gutxiago bilbotarrek. Auziko argudioetan, jabe haiek Begoñaren elizatearen burujabetza ukatzera ere ausartu ziren.⁵⁷

Begoñak Bilboren jurisdikziotik libre ateratzea lortu zuen. Ez, ostera, Abandok eta Deustuk. Auzitan segitu zuten Lege Zaharra agortu zen arte. Eta bitartean Bilboko udal kargudunak urtean hiru bider Deustun agertzen ziren aginte makila goian zeramatela.⁵⁸

57. Monrealek dio Begoña 1590ean behin betiko kendu zuela lepotik bilbotarren jurisdikzio gaitasunaren auzia. Mendegarrenean suspertzen ahalegindu ziren bilbotarrak, baina alferrik: “Intentaron mover el asunto llevándolo a la Junta de Guernica de 1678, donde, según afirmaba Juan Antonio de Basurto, rico hacendado de Bilbao “vio conmoberse a toda o la mayor parte de la Junta” en contra de los promotores. Los bilbainos, en vista de este fallo, siguieron otro camino. Al haber un número muy elevado de vecinos de la villa propietarios de casas de Begoña, consiguieron del Juez Mayor que ordenara, con fecha 22-VIII-1690, que los dueños propietarios (no vecinos) de las casas resolvieran lo que procedía en este asunto en cruz parada. Celebróse esta el 17 de septiembre, hubo pareceres discrepantes y siguió el pleito adelante. El Señorío apoyó a Begoña. Aseguraba el citado Basurto que los alcaldes, alguaciles y prebostes de la villa dejaban sus varas, cuando pasaban por Begoña, en las cadenas contiguas al convento de la Cruz de las Calzadas”. Teófilo Guiarden eta Fidel Sagarminagaren obretatik edan zuen. Ikus, Monreal Cia, op cit., 109 orrialdea.

58. Bada paralelismo esanguratsua: Auzo batzarraren aferan, Begoñak bilbotarren eraginaz libre iraun zuen, Deustuk aldi baterako burua makurtu behar izan zuen eta Abando urte askotan hartu zuten mendeen. Jurisdikzio auzian ere, Begoña Bilboren nahikarietatik jare atera zen, Deustuk amore eman behar izan zuen baina eutsi egin zion eta Abando are makurrago ibili zen.

1714ko Done Peri eguna bereziki liskartsu suertatu zen Deustun. Bilboko udal ordezkariak meza nagusira azaldu zirenean istiluak iziotu ziren. Zehazki zer gertatu zen ez dakigu, baina Bilboko Udaleko artxiboko agiri baten auziaren laburpena azaldu da:

“También se vale de que en el año pasado de mil setecientos y catorze por el syndico Procurador general de la villa se dio querella ante el Corregidor del Señorío contra Lazaro Fano, y otros vezinos de Deusto, sobre aver embarazado al Regidor decano de la Villa el día de San Pedro de aquel año sentarse inmediato al alcalde de dicha villa que se hallaba presidiendo la función que se celebraba en la Parrochial de la ante-Iglesia.

Cuya querella se admitió y a su tenor se recibió sumaria información, y en su vista se mandó prender y puso preso a dicho Lazaro de Fano y se le tomó su confesión en que confesó ser cierto presidir el alcalde en dicha función y otras que expresa pero negó que los Regidores se sentasen con el”.⁵⁹

Mata korrejidoreak, Bilboko kargudunen eskariz, Lazaro Fano deustuar fiela giltzapetu zuen. Espetxeratzeak oihartzun handia eragin zuen. Diputazioak berak eskatuta, Korrejidoreak Fano askatu, eta auzia Bilboren eta Deusturen jurisdikzio eztabaida zaharrera mugatu zen.⁶⁰

59. BUA, Antigua, 314/01/01, 19. orrialdean. Beste agiri batean Lazaro Fanori espetxean hartu zioten aitorpenaren kopia ei dena aurkitu dugu. Mata Korrejidoreak egin zizkion galderak eta Fanok emandako erantzunak aintzat hartuta, iskanbila Lazaro Fanok Bilboko alkatearen ondoren eseri nahi izan zuenean piztu zen. Bilboko errejidore Joseph Aranguren ez zion lekuri utzi nahi izan –itxura batean, ez zegoen horretarako aurrekaririk- eta ondorengo sakaden ondorioz Bilboko alkate Francisco Antonio de San Cristoval behagainera jausi zen. Orduan agindu zuen Fano preso eramateko. Korrejidoreak agindu horri berbaz eta keinuz (ezpata txiki bat zeraman aldean) aurre egin izana leporatu zion deustuarrari. Korrejidorearen galderen arabera, Fanok laguntzaile bakarra eduki zuen –“un hombre que llevaba una casaca negra con un palo en la mano que se dice llamarse Aguirre y por mal nombre aires” eta preso zeramatenean deustuarrei esan zien Deustun ez zegoela gizonik: “aviendo salido de dicha yglesia y estando en el cementerio de ella colerico y enoxado y por que no le avian asistido los vecinos de dicha antegylesia dando boces diziendo no ai hombres en la anteyglesia pues no le rremediavan a palos”. Fanok gauza biak ukatu zituen. Lazaro Fanoren aitorpenaren kopia. Bilboko espetxean, Fernando de la Mata korrejidorearen aurrean. 1714/VII/12. BUA, Antigua 0066/001/01. 3499-3506 orrialdeak.

60. Monreal, op. cit., 113. Regimiento Generalak agindua eman zien Jaurerriko sindikoei Deustuaren alde jokatzeko baina agiritan ez da azaldu jarduera horren arrastorik.

Horrelako iskanbila baten ondorioz Lazaro Fano espetxeratu izanak bestelako interesak zeudela ohartzeko bidea zabaltzen du. Korrejidorearen eta Bilboko Udalaren arteko elkarlanak espetxeratu zuen eta horrek zer pentsatua ematen du. Aurreko baten deustuarren buruzagitzat jotzen zutela agertu dugu. Lau hilabete geroago bilbotar ugazaben ofentsiba hasi zen, Korrejidorearen ezinbesteko laguntzaz, Lazaro Fano bera helburu nagusitzat jota.

Areago, Pedro Fanok 1715ean egindako salaketa gogora ekartzen badugu, bilbotarren eta beren-beregi bilbotar kargudunen presioa nabarmena izan zen ‘kolpea’ jo zietenean:

“si alguno desta dicha anteyglesia [Deustua] ablaba los amenazaban y no dejaban ablar ni decir su sentir los vecinos y regidores actuales de dicha villa de Bilbao donde su merced de dicho señor corregidor haze oficio de alcalde y a cuio pedimento hizo conbocar y fue a dicha cruz parada acompañado de todos los de dicha villa de Bilbao y de otras muchas personas de ella, asi religiosos como clérigos seglares (..)”

Agirian dago testu horretan Bilboren presioa. Deustuarrak, duda barik, sakatuta sentitu ziren. Eta kontu horrek deustuarrak zelan minberatzen zituen jakiteko, hona hemen beste kontu argigarri bi. 1674ko agiria, testu honen hasieran esan bezala, Deustuko Udalak mila dukateko mailegua hartzeko egin zuten. Zertarako behar zuten? Deustuk eta Bilbok auzitan ziharduten

“sobre la juridizion que los dichos señores Justicia y Reximiento [Bilboko Udala, alegia] pretenden tener en esta dicha anteyglesia”

Bilbotarren jurisdikzioari aurre egiteko hipotekatu zituzten euren etxeak eta ondasunak deustuarrak 1674an. Hain zen sakona euren nahia. 55 urte geroago, 1730ean, auzi hura eta 1714an eragindakoa galdu zituen Deustuk Valladoliden.⁶¹ Baina grinak lehen bezain bizi segitzen zuen. Urte hartako azaroaren 2an, Lazaro Fanoren alargun Marina Aldekoa

61. Sententzia Juez Mayor de Vizcayak eman zuen, 1730ko otsailaren 12an. Prozesu guztia hemen: BUA, Antigua 0314/001/003. Ebazpenaren kopia bat hemen: BUA, Antigua, 0066/001/001.

“como a cosa de las cinco de la tarde poco mas o menos con el motibo de haver visto pasar por el varrio de Olabiaga desta dicha anteyglesia al señor don Luis de Ybarra y Larrea alcalde y juez ordinario de la enunciada villa de Bilbao (..) montado a cavallo con vara alta de justicia en sus manos acompañado de dos señores rejidores capitulares sindico procurador y escrivano de Aiuntamiento de dicha villa y de algunos de sus ministros alguaciles (..) la otorgante [ahalorde emaila, Marina] en el concepto y error en que se hallaba de que dicho señor alcalde no podía levantar vara de Justicia ni entrar con ella en la forma expresada en dicho paraje ni con la comitiva referida de ministros de justicia de dicha villa dio algunas voces lebandandolas a fin de que algunos vezinos y los que las oiesen acudiesen ha embarazarlo en la forma debida y que cupiese para que esta dicha anteyglesia no quedase con aquel exemplar perjudicada en su jurisdicción”.⁶²

Artean Marina Aldekoa adineko emakumea zen. Baina bilbotar alkatea eta segizioa Deustun ikusita, odola bor-bor irakiten sentitu eta herritarrek matxinatzen ahalegindu zen.

3. ONDORIOAK.

XVII. mendearen azken laurdenean eta, itxura guztien arabera, baita aurreko urteetan ere, Deustuko udal batzarra herriko gizonezkoek osatzen zuten, etxagun nahi maizter. Errenteroak aldi oro auzotasun eskubidearen jabe agertzen dira dokumentazioan. Berdin gertatzen da Begoñan. Beraz, errenteroei eskubide hori noiz aitortu zitzaien ez da galdera egokia, ez baititugu Aro Modernoan eskubide hori barik behin ere ikusi.

Deustuko kasuan, gainera, errenteroak auzo batzarrean zeuden etxagunak oraindik ere etxaldean portzentaje garrantzitsua zeukatela (%30-40 inguru 1650 eta 1674an) eta, euren artean jabetza oso banatuta zegoenez, herritar kopuru nahikoa ziren. Beraz, ez dago fenomeno bien arteko loturarik: Deustuko errenteroak ez ziren auzo batzarrean sartu etxagunak urritu

62. BUA, Antigua 0315/001/003. Marina Aldekoak barkamena eskatu zuen gero auzia saihesteko. Orduko hartan Bilboko alkateak ez ohiko bisita egin zuen, Gutun Betearazlea irabazi eta gero.

izanaren ondorioz. Hori bai, 1670 eta 1700 urte bitarteko fiel gehien-gehiak deustuar etxejabe txikiak izan ziren. Kargua euren klasekoen sasi-monopolio gisa zerabilten.

Sistema hori, itxura denez, bere horretan heldu zen XVIII. mendearen lehenengo hamarkadara. Baina 1674 eta 1714 bitartean deustuar etxagunen erabateko gainbehera eta desagertzea gauzatu zen. Eta ahulezia igarri ahala kanpotar (bilbotar, alegia) ugazabek Deustuko udal batzarra euren erara erabiltzeko ahalegina egin zuten. Interesak handiak ziren, hala herria kontrolatzeko eta haien itzala zabaltzeko nola udal jardunetik bertatik onurak ateratzeko, herri-lurren afera lekuko. Erasoari 1688an ekin zioten. Lehenengo eta bat, etxagunen udal kudeaketa salatu zuten, herri diruen 'erabilerak okerra' auzitegiatarak eramanen. Bide horretatik udalgintzan eragiteko zirrikitua topatu zuten. Gero, 1715ean, auzo batzarrean parte hartzeko eskubidea bereganatu zuten. Azkenik, 1716tik aurrera, Deustuko fiel bietako bat eurentzat erreserbatzea lortu zuten. Aldaketok legezko bideak saihestuz eta indarra nahi amarruak erabiliz erdietsi zituzten: Korrejidorearen gehiegikeriak lagun, Bilboko udal kargudunen eta erlijio-gizonen presioa, kartzela, isunak... Ahaltsuak izanik ere, ia hogeita hamar urte eta oso-oso aldeko kinka bat behar izan zuten garaipena gauzatzeko, hain izan zen kementsua deustuarren erresistentzia.

Gatazka hori ez da kanpotar ugazaba-herriko auzoen arteko gatazka hutsa. Jabe haiek bilbotarrak ziren, Bilboko kargudun kasu askotan, eta aliatu nagusia Mata korrejidorea izan zen, kinka gakoan Bilboko alkatea ere bazena. Eta bitartean, jurisdikzio bisitak zirela eta Bilboren eta Deusturen arteko auzi judiziala gori-gori zegoen. 1714-1716ko borrokaldia Bilboko Udalak Deustu kontrolpean paratzeko saio gisa ere ikusteko hamaika arrazoi dago.

Helburua eskuratu zuten, baina garaipenari ñabardurak paratu behar zaizkio. Alde batetik, erreteroeak euren auzotasunari eutsi zioten, inoiz bilbotar ugazabek kolokan jarri nahi izan bazuten ere. Eta borroka honetan protagonismoa klase sozial nagusiena izan bazen ere (deustuar etxejabe txikiak eta bilbotar ugazabak) maizterrak ere tartean ibili ziren eta haien interesak defendatu zituzten. Are gehiago. Ataka horretatik herriko etxejabe txikien multzoa ia desaginda atera zen eta, hurrengo urteetan, deustuar eta erreteroeak ia sinonimoak izan ziren. 1716-1735 urte bitartean, deustuarren

fiel izandakoen artean, ezagutzen ditugun izenetatik gehiago dira maizterrak etxagunak baino.⁶³

Bestetik, bilbotar ugazaben garaipena bortizkeriaz jantzita etorri zen. Oso nabarmen. Irabazi egin zuten, bai, baina horretarako legeak bihurritu, epaileak bere alde ekarri eta herritarrek zemaitu egin zituzten. Agiriko jardunak izan ziren haiek. Eta horrek klase patrizioaren sinesgarritasuna eta prestigioa kaltetu zituen. Garesti ordaindu zuten, haien bortizkeriak ez baitzituen deustuarrak otzandu.

Interesgarria da, oso, urte bi geroago, 1718ko matxinadan, talde bakoitzak eduki zuen jarrera eta udal batzarrak jokatu zuen eginkizuna aztertzea. Gaur egun, oraindik ere, ariketa nahikoa gaitza da, baina ildo batzuk nabarmendu ditzakegu. Deustuarrak gainerako albo-herrieekin batera matxinatu ziren, bilbotar elitea zeharo ikaratuz. Are gehiago, matxinadarako tresna nagusia auzo batzarra izan zen. Herritar komunitatearen gorengo adierazgarria izaten segitzen zuen, bilbotar aberatsen esku hartzea gorabehera.⁶⁴

Batu ditugun agirien arabera, matxinada piztu baino egun batzuk lehenago udal batzarrak egin ziren Bilboko albo-herrietan, Deustu tartean, aduanen inguruan erabaki larriak hartzeko. Itxura batean, Deustukoan deustuarrak baino ez ziren egon, bilbotarrik gabe. Abuztuaren 16an, Manuel Zugasti eskribauaren arabera, Deustun udal batzarra egin zuten eta Bizkaiko agintarien jokaera ontzat jo zuten. Baina hilaren 28an berriro ere elkartu ziren, eta orduko hartan batzuek epelak entzun behar izan zituzten:

“haviendose buuelto a juntar el día veinte y ocho de dicho mes a tratar del mismo asunto dijeron muchos vecinos haziendo caveza por ellos Miguel de Arauco y Manuel de Barañano que el Decreto del día

63. Guk dakigunez, gutxienez bost maizter: Juan Ribera (1719), Juan Aresti Arana (1727), Domingo Elorriaga (1728) eta Jose Garai (1732 eta 1738). Etxagunak: Antonio Tellaetxe (1718), Migel Idoiaga (1721), Juan Deusto (1725 eta 1733). Dudakoak, Francisco Arana (1716), Juan Arana (1731) eta Pedro Arauko (1726 eta 1735).

64. Xabier Lamikizek 1718ko matxinadaren eta Bilbo ondoko herrien udal batzarren eraketaren arteko harremanaz galdetu zuen. Gure datuen arabera, Begoña eta Abando izan ziren sutsuenak, nahiz eta bakoitzean auzotasuna modu diferentean praktikatu. Haien aldean, Deustu epelago agertu zen matxinadarekin. Lamikiz, Xabier, *Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan*. Uztaro 33. zenbakia. 2000. 21-41 orrialdeak.

diez y seis se había ejecutado a contemplación de Antonio Tellaetxe fiel, Pedro de Fano, Miguel de Iduyaga, Juan de Ribera, Agustín y Agustín de Goiri padre e hijo y Ignacio de [Fano] Aldecoa y estos con el testigo habían tomado dineros sobre consentir en las Aduanas y con esta especie hicieron nuevo decreto revocando el de el día diez y seis, pidiendo Junta general y con efecto se escribió el Decreto que autorizó el testigo y de esto nació que los vecinos ynquietos continuaron en amenazar de muerte al testigo y a los demás que concurrieron al Decreto del día diez y seis y estos ocurrieron al Corregidor con la queja”⁶⁵

Hona hemen orain arte ikusi ez dugun gatazka lerroa. Alde batetik, deustuar etxejabe txikien azken hondarrak (Antonio Tellaetxe fiela, Pedro Fano, Idoiaga, Ribera, Goiritarrak eta Lazaro Fano zenaren -1717an hil zen- seme Ignazio Fano Aldekoa), handikien jokoa babesteaz salatuta (gogor salatuta, aduanak onartzeko diruak hartu izana leporatu zieten eta). Bestetik, herritar multzo handia Migel Arauko eta Manuel Barañano buru dituela. Barañano maizterra zen; Arauko (edo Leura, bietara esaten diote eta), etxejabe txikia. Eurak izango dira matxinadak Deustun eduki zituen protagonista nagusiak. Ondoren gertatu zena ikusita, esan daiteke matxinada heldu zenean herritar erradikalizatuek zeharo bazterrean utzi zutela etxagunen taldea, urte askotan Deusturen ordezkaritza eta agintaritza eduki zuena.

Etxejabe txikien kexaren aurrean, Korrejidoreak, beti Zugastiren deklarazioaren arabera,

“dio su auto para que ninguno de obra ni de palabra se atravesase con dichos vecinos pena de presidio y de doscientos ducados cuyo auto con grande temor fue el testigo a hazerlo saver a los vecinos

65. Manuel Zugasti eskribauak Tomas Melgarejo errege fiskalaren aurrean egindako deklarazioa. Melgarejo 1718ko matxinadaren osteko errepresioaz arduratu zen. BFAH, Judicial, 1017/007. Juan Archer irlandar jatorriko merkatariak ere deklaratu zuen, esanez ba ze, arazoa izan zela “el poco gusto con que fueron administradas las aduanas... lo que dio motivo que algunas aldeas diesen principio a manifestar su disgusto como subcedió en la de Deustua que muchos días antes de los expresados oyó decir el testigo haver decretado que a los guardas de dichas Aduanas y rentas de SM no se les [su]ministrasen alimentos y con este motivo confirieron algunos guardas esta noticia con el testigo y les prebino era nezesaria la prudencia pues todas las novedades en sus principios permiten dificultades”.

como con efecto le hizo notorio a muchos y pretendiendo después se hiciese notorio en junta a todos en cruz parada llegó el día domingo quatro de septiembre en el qual hizo notorio dicho auto a todos los vecinos entre las onze y las doze de la mañana y aunque por entonzes no hicieron decreto alguno toda su ynquietud y conferencias eran sobre Aduanas y Guardas”⁶⁶

Korrejidorearen zemaia ez zituen batere beldurtu edo minberatu. Areago, ez zioten jaramonik egin. Izan ere, irailaren 4ko eguerdi hartan bertan piztu zen matxinada. Begoña eta Abando altxatu zirela jakin bezain laster, Zugastik ez ei zuen zalantza izpirik izan:

“pareciendole al testigo que esta demostrazon estava ya premeditada entre las tres repúblicas [Begoña, Abando eta Deustu]”.⁶⁷

Ondoren Bilbon gertatu zirenetan deustuarrek multzo moduan hartu zuten parte, gainerako herriek bezalaxe: herriko gizonak, denak batera, armak hartuta eta fielak buruan –euren borondatez ala derrigortuta- Bilbora joan baitziren irailaren 4, 5 eta 6an aduanak kentzeko agiri ofiziala eskatzera. Besteak beste, aduanen aurrean ahul, bigun, otzan edo lagun azaldu ziren handikien eta funtzionarioen kontra jo zuten, hala euren ondasunen nola euren pertsonen kontra. Horrelakoetan, deustuar batzuk identifikatu zituzten gerora. Antonio Altzagak, esate baterako, bere ondasunak erre zituztelakoan salatu zituen

“Juan de Aresti, vecino de Deustua, y dos hijos del organista del mismo Deustua y otros barqueros de la rribera”⁶⁸

Pedro Usaola Bilboko alkateak kontatu zuenez, irailaren 5ean, matxinoak lasaitzeko, jesuitak prozesioan atera ziren “con el Santísimo” baina Diego Allendesalazarren etxearen aurrean Abandokoak zeuden eta gero Begoñakoak etorri ziren “Bilboko batzuekin eta Deustuko errepublikakoekin”. Etxearen kontra jo nahi zuten. Deustuko fielak tartean zeuden, baina “derrigortuta”.

66. Ibidem.

67. Ibidem.

68. Ibidem.

“y sin embargo de que los padres continuaron sus exortaciones algunos de ellos empezaron a perderles el respeto sin haber aprecio del copon que tenían presente y vio el testigo que el primero que empezó a subir por las rejas fue el dicho mozo llamado Patullo y algunos de Begoña y Deustua de los que no se acuerda”⁶⁹

Deustun etxe bat erre zuten, Domingo Tellaetxeren (Jaurerriko kontsultorea izandakoa, aduanen aurrean bigun jokatu zuen horietakoa)⁷⁰ Elexaldeko eraikin dotorea. Su emaille, antza denez, lehen aitatutako Migel Arauko edo Leura, *Martin Pirri* ere esaten ziotena.

Matxinadaren gorria pasa eta aste bitara, irailaren 18an, Manuel Zugasti eskribaua Deustura joan zen, Jose Franciso Landa handikiak hala eskatuta. Beldurak airean azaldu zen, eta bazeukan horretarako arrazoirik:

“luego que le bieron allí se enpeñaron en que había de manifestar quien había sacado el auto del Corregidor que lleba expresado y respondiendo había sido a ynflujo del Diputado General para aquietarlos no quisieron persuadirse a ello y los dichos Miguel de Arauco y Manuel de Barañano acometieron a atropellar al testigo (...) y milagrosamente se escapó refugandose a la Yglesia.”

Azkenean Deustuko hiru gizon, gutxienez, zigortu zituzten: Juan Aresti eta Manuel Barañanori (biak errenteroak), erbesterako zigorra jarri zieten (desterrua). Migel Araukori, zortzi urteko kartzela ezarri zioten, baina artean ihes eginda zegoen.

Azken ohar bat. Deustuko udal batzarraren auzian hain eginkizun garrantzitsua eduki zuen Fernando de la Mata 1714-1717 urte bitartean egon zen Bizkaian Korrejidore. Baina 1718ko martxoan itzuli zen, Aduanetako *superintendente general* gisa, aduanak indarrean jartzeko. Hil hartako 18an irakurri zuten Bilboko plazan aduanak ezartzeko bandoa. Harrez gero, bera eta bere gizonak (guardak) erabat baztertu eta jazarri zituzten bilbotarrek

69. Ibidem

70. Domingo Tellaetxe 1695ean salatu zuten deustuarrek, herriko sosak beretzat hartu zituelakoan. Ikus 35. oin-oharra.

eta, oro har, bizkaitarrek. Labordak zabal jaso du jazarpen hori, Mataren gizonen testigantzekin.⁷¹ Horregatik ez gara harrituko, matxinadaren gorian, abandotarren buru zetorren Antonio Gandiak, *Bizkonde*, bere gizonei ondokoa esan ziela jakitean:

“dijo bamos adelante que emos de quemar la casa del Patron de Begoña aunque perdiera tres hijos que tenía echando por vidas y lamentandose repetidas vezes de no coger allí a don Fernando de la Mata para abrasarle el alma y hazerlo pedazos”⁷²

Deustuko auzia horrela amaitu zen. 1716ko sistemak 1773 urtera arte iraun zuen. Ez astindu barik, oster. Baina iraun. Urte bitarte horretan Deustuko errealitate sozio-ekonomikoan aldaketa itzela gertatu zen. Indar berriak loratu ziren, baita baldintzak mudatu ere. 1773an bilbotar ugazaben kontrako erasoak jo zuten. Eta 1716ko garaileek belarriak apaldu behar izan zituzten.

71. Laborda, Juan Jose. *El Señorío de Vizcaya. Nobles y fueros (c.1452-1727)*. Marcial Pons. Madril. 2012. 477-483. Labordaren ustez, garai hartako bilbotarrek euskaraz egiten zioten funtzionario arrotzari mesprezua agertzeko. Baliteke, baina nik ez nituzke beste aukera batzuk baztertuko. Adibidez, euskaraz egiten zutela euskaldunak zirelako.

72. BFAH, Judicial, JCR1017/007. Antonio Lezama ahaldun nagusiaren deklarazioa.

